

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko abendua / 333. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



# MARI

**IXILIK NAHI GAITUZTENEAN**

fikziozko filma grabatu dute Oñatiko gaztetxe mugimenduaren 40. urtemuga ospatzeko

## PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2023/2024

'Plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko zoladura berriztea eta berdeguneak egokitzea'  
**AUKERA BOZKATUENA**

» Herritarren **849** boto-paperak jaso dira Partaidetzazko Aurrekontuen bozketa fasean, eta hauetatik **818** izan dira baliodunak

» 500.000 euroko aurrekontuaren barruan, herritarren boto gehien jasotako **9 proposamenek** egin dute aurrera

» Udalak 9 proiektu horiek hurrengo bi urteetan gauzatzeko konpromisoa hartu du, baina zehaztu gabe dago oraindik urte bakoitzean zein proiektu burutuko den

**Partaidetzazko Aurrekontuak 2023-2024** prozesua iritsi da amaierara. Bozketa fasera iritsi diren 21 proposamenen artean hautatzeko aukera izan dute herritarrek, eta badakigu, dagoeneko, zein izan diren aukeratutako inbertsio proposamenak.

**818 BOTO BALIODUN**

Azaroaren 4tik 20ra arteko epea izan dute herritarrek bozka emateko eta, guztira 849 boto-paper jaso dira, baina datuak egiaztatu ondoren, 31 boto baliogabetu dira, arrazoi ezberdinak tarteko (datuak zuzenak ez zirelako, datu pertsonalik eman ez dutelako, botoak gaizki emanda zeudelako, edo Oñatin erroldatu gabe zegoelako). Horrenbestez, guztira 818 izan dira boto baliodunak.

Botorik gehienak, jasotako guztien bi heren, gutxi gora behera, *online* bidez jaso dira, eta gainerakoak, paperean, herriko gune ezberdinetan jarritako postontzien bidez.

**HERRITARREK AUKERATUTAKO INBERTSIOAK**

Gogoratu, botoa balioduna izateko, herritar bakoitzak 6 proiektu aukeratu behar zituela, guztiak balio berberarekin. Eta, horrenbestez, boto guztien zenbaketa egin ostean, aukeran zeuden 21 proposamenen artetan boto gehien jaso duten 9 inbertsioek (500.000 euroko aurrekontua agortu arte) egin dute aurrera. Ikusi ondoko orrialdean.

Azpimarratzeko da, Kurpide gaineratik Soraluze hotelerantz doan ibilbide zatia errekuiperatzea eskatzen zuen proiektua 6.a izan dela boto gehien jaso dutenen zerrendan, baina, hala ere, kanpoan geratu dela, proiektu honek 109.000 euroko aurrekontua daukalako, eta aurretik dituen bost proiektuen aurrekontuei batuz gero gainditu egiten zuelako 500.000 euroko muga. Arrazoi beragatik, San Martin parkean kalistenia praktikatzeko elementuak jartzea eskatzen zuen proiektuak (15.000 euroko aurrekontua) aurrera egin du, bozka kopuruaren arabera 17. tokian dagoen arren.

Udalak konpromisoa hartzen du herritarrek aukeratutako proiektu horiek hurrengo bi urteetan zehar (2023 eta 2024) gauzatzeko, baina oraindik ez du zehaztu urte bakoitzean zein burutuko duen.

**HERRITARREI ESKERRAK**

Udalak eskerrak eman nahi dizkie bozketan eta prozesuaren gainerako faseetan modu batera edo bestera parte hartu duten herritar guztiei, erakutsitako jarrera eta interesagatik, eta partaidetzazko ariketa aberasgarri hau aurrera eramaten ahalbideratu izanagatik.



**Maite Aiastui Kortabarria**  
Irakaslea

**Ingeleseko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com



**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)



## AUKERATUTAKO PROPOSAMENAK



**PLAZAKO KIOSKOAREN ETA FRONTOIAREN ARTEKO ZOLADURA BERRITZEA ETA BERDEGUNEAK EGOKITZEA**

- Bozkak: **440** (%53,86)
- Aurrekontua: **121.000 €**



**BEREZAO AUZOKO PARKEKO MAHAIK ETA BANKUAK KONPONTZEA**

- Bozkak: **421** (%51,53)
- Aurrekontua: **5.400 €**



**KOMUN PUBLIKOA JARTZEA UR JOLASEN PARKEAN, ELTZIA PAREAN**

- Bozkak: **402** (%49,20)
- Aurrekontua: **78.700 €**



**HERRITARREK ENERGIA-KOMUNITATEAK SOR DITZATEN UDALAK PROZESUA ERRAZTEA**

- Bozkak: **369** (%45,17)
- Aurrekontua: **40.000 €**



**JOLAS PARKEETAN ELEMENTUAK JARTZEA 8-14 URTE BITARTEKO HAUR ETA NERABEENTZAT**

- Bozkak: **303** (%37,09)
- Aurrekontua: **200.000 €**




**HAINBAT BIZIKLETA APARKALEKU JARTZEA HERRIAN ZE HAR**

- Bozkak: **294** (%35,99)
- Aurrekontua: **6.100 €**



**KIROLDEGIAREN AURREALDEKO JOLAS PARKEAN ATERPEA ETA ITURRIA JARTZEA**

- Bozkak: **268** (%32,80)
- Aurrekontua: **30.300 €**



**ITURRIGORRIKO ZELAIK GARBITZEA**

- Bozkak: **257** (%31,46)
- Aurrekontua: **3.500 €**



**SAN MARTINGO ZUHAIZTIAN KALISTENIA PRAKTIKATZEKO ELEMENTUAK JARTZEA**

- Bozkak: **148** (%18,12)
- Aurrekontua: **15.000 €**

### Kanpoan geratu diren proiektuen boto kopurua

- Garagaltza auzoan, Kurpide gainetik Soraluze hotelerrantz doan ibilbide zatia errekuiperatzea  
**Bozkak: 302** (%36,96)
- Jaumendirako bideturtean oinezkoen irisgarritasuna bermatzea  
**Bozkak: 214** (%26,19)
- Barandak jartzea herriko hainbat puntutan: Zubiko pilotalekua, Zubikoako parkinean eta San Martingo aldapan  
**Bozkak: 200** (%24,48)
- Kanpantxoko iturria birgaitzea  
**Bozkak: 189** (%23,13)
- Zaharkitutako zakarrontziak aldatzea  
**Bozkak: 180** (%22,03)
- Pilotaleku txikia jartzea San Martingo kirol kantuan  
**Bozkak: 176** (%21,54)
- Musika grabatzeko aretoa egokitzea Eltzian  
**Bozkak: 173** (%21,18)
- Grafittiak margotzea herriko hainbat gunetan  
**Bozkak: 162** (%19,83)
- Ibilgailu elektrikoentzako birkarga-puntuak jartzea  
**Bozkak: 119** (%14,57)
- Bidaurretako iturria egokitzea  
**Bozkak: 119** (%14,57)
- Txakur gorotzak jasotzeko kanpaina egitea  
**Bozkak: 97** (%11,87)
- Udal eraikinetan seinale inklusiboa jartzea  
**Bozkak: 67** (%8,20)



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA


943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



# Gaztetxe mugimendua balioan jartzeko filma

Gaztetxeak '*Mari. Ixilik nahi gaituztenean*' fikziozko filma ekoitzi du, Oñatin zein Euskal Herrian izan diren gaztetxe eta asanbladakide guztiei eskertza eginez



**SINOPSIS:** Oñatiko gaztetxearen desalojoa ekiditeko borrokan buru belarri murgilduko da Mari. Baina Udalari ez ezik, familia barruan eta gazte asanbladan bertan sortuko zaizkion liskarrei ere aurre egin beharko die.

Bi urteurren berezi ospatzen dira aurten. Antixena gaztetxearen 10.a, batetik, eta, Oñatiko gaztetxe mugimenduaren 40.a, bestetik, 1982an jarri baitzen martxan herriko lehen gaztetxea, Aita Madina kalea eta Olaiturri arteko kantoian. Euskal Herriko lehenengotako gaztetxea izan zen, eta *Gaztetxe* izena bera ere orduantxe sortu zen Oñatin.

Hori guztiori kontuan hartuz, egungo Antixena gaztetxeko kideek zerbait berezia egin nahi izan dute, eta, hala, 45 minutu pasatxoko iraupena duen pelikula bat osatu dute, Oñatin zein Euskal Herrian izan diren gaztetxe eta gaztetxeetako asanbladakide guztiei eskertza eginez.

## FIKZIOZKO LANA

Gaztetxe mugimenduaren historia jasoko zuen dokumental klasiko bat egin ordez, gaztetxe mugimendua balioan jarriko zuen fikziozko pelikula bat egitea erabaki zuten, eta urtebeteko lanaren ostean, prest dago jada estreinaldirako.

*Mari. Ixilik nahi gaituztenean* da filmaren izenburua, eta Mari izeneko 18 urteko neska gaztea da protagonista nagusia. Gertaerak 2032an kokatzen dira. Gaztetxeko asanblada oso ahul dago eta egoera hori baliatu nahi du Udalak gaztetxea ixteko, kultur etxea handitu eta zerbitzu batzuk bertara eraman nahi dituela argudiatuta. Horren aurrean, Mari gaztetxearen desalojoa ekiditeko borrokan murgilduko da buru belarri. Baina Udalari ez ezik, familia barruan eta gazte asanbladan bertan sortuko zaizkion liskarrei ere aurre egin beharko die.

## TALDE-LANA

Zinemagintzaren arloan diharduten herriko hainbat gaztek parte hartu dute pelikulan, gaztetxeko kideekin batera.



Aktore nagusiei dagokienez, Paula Polo gazteak egiten du *Mari-rena*, Amaia Castañeda eta Egoitz Aizpuru dira bere gurasoak fikzioan, eta Maria Asun Pagoaga (*80 egunean* edo *Loreak* bezalako filmetan aritutakoa) amama; Mikel Sagarzazuk alkatearen rola beteko du, eta Ibai Elorzak (*Lope* filmeko protagonista) Kasablankako gaztetxeko kide batena. Irazan taldeko kideak ere aritu dira antzezle lanetan.

Arlo teknikoari dagokionez, Xanti Ugarte, Sophia Morales eta Oier Yaniz aritu dira irudiak grabatzen eta argazkilaria lanetan, Mikel Letamendi soinua grabatzen, Amaia Anduaga *script* lanetan, eta Iraia Urkia jantzi eta makillaje arduradun, batzuk aipatzearren.

Azpimarratzekoa, gainera, pelikulako soinu-bandarako musika Eñaut Zubizarreta 'Trigger' biolontxelo-jotzaile atxabaltarrak sortu duela propio film honetarako, eta Imanol Astudillo soinu teknikariarekin grabatu zuela Antixenan bertan. Auzolanean egindako filma da, bistan denez, eta Antixena gaztetxeak auto-finantziatu du, oso-osorik.

Gidoilari eta zuzendaritza taldean aritu diren Mikel Garai, Anjel Lera, Xanti Ugarte eta Jone Markuleta oso gustura daude emaitzarekin, eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte filma ikustera. "Gaztetxearen inguruko pelikula bat da, baina gaztetxearekin loturarik ez duten herritarrek ere gustura ikusteko modukoa da, trama ezberdinak dituelako eta oso lan txukuna eta 'profesionala' delako. Uste dugu opari polita dela, bai gaztetxearentzat, eta baita Oñatiko herriarentzat ere".

***Zinemagintzaren arlo ezberdinetan diharduten herriko hainbat gaztek parte hartu dute filmean, Gaztetxeko kideekin batera***

***Soinu bandarako musika Eñaut Zubizarreta Trigger biolontxelo-jotzaile atxabaltarrak sortu du propio pelikula honetarako***

Kultur etxeko eta Santa Anako emanaldietarako sarrerak udalaren webgunean eta lehiatila digitalean eskura daitezke

• **Abenduak 7, asteazkena, 18:30tan:**  
Aurre-estreinaldixa gaztetxian (parte-hartzaientzat).  
Ostian, luntxa.

• **Abenduak 8, osteguna, 19:00tan:**  
Kultur Etxeko zine aretuan estreinaldixa.

• **Abenduak 9, ostirala, 18:30tan:**  
Durangoko Azokako Irudienean.

• **Abenduak 9, ostirala, 22:00tan:**  
Santa Ana antzokixan.

• **Abenduak 10, zapatua, 19:00tan:**  
Santa Ana antzokixan.

• **Abenduak 11, domekia, 19:00tan:**  
Santa Ana antzokixan.

\*Proiektzio danek zuzendaritza lan-taldian aurkezpena eta osteko solasaldixa eukiko daue. Doan izango dia baña borondatia eskatuko da.



EGITARAJUA



# EUSKARAREN ERABILERA 71,5ekoa da Oñatiko kaleetan

» la 6 puntu egin du gora euskararen kale-erabilerak Oñatin, 2016ko neurketarekin alderatuta


Hamar lagunetik zazpik (%71,5) euskaraz hitz egiten dute Oñatiko kaleetan, laurden bat pasatxok (%27,1) gaztelaniaz, eta %1,4k beste hizkuntza batean. Horixe da, Oñatin kaleko elkarrizketetan euskara zenbateraino erabiltzen den aztertzeko Soziolinguistikaren Klusterrak egindako azken neurketak utzi duen argazkia.

Emaitza positiboa da, euskararen kale-erabilerak ia 6 puntu egin baitu gora Oñatin, azken neurketarekin alderatuz (2016ko %65,8tik 2021eko %71,5era). Gainera, igoera horrek jarraipena ematen dio aurreko bosturtekoan (2011tik 2016ra) eman zen ia 2 puntuko igoerari (%64,0tik %65,8ra).

## BOST URTEAN BEHIN

Soziolinguistikaren Klusterrak 5 urtean behin egiten ditu euskararen erabileraren inguruko kale-neurketak, eta azkena 2021eko udazkenean burutu zen. Neurtzaileek 36 ordu eman zituzten Oñatiko kaleetan, hiru gune ezberdinetan: herri barruan (Kale Zaharra, herriko plaza, Kale Barria, Etxaluze, San Martin...), San Lorenzo-Olakua, eta Errekalde. Gune edo ibilbide bakoitzean bi orduko seina neurraldi egin zituzten, egun eta ordu ezberdinetan. Guztira 1.380 elkarrizketa behatu zituzten, eta horietan ari ziren 4.205 solaskideek osatu zuten neurketarako lagina.

Ikerketa teknikari dagokionez, datuak



## DATU OROKORRAK

Duela bost urteko kale neurketako datuekin alderatuz ia 6 puntu egin du gora euskararen erabilerak Oñatiko kaleetan. Gainera, igoera horrek jarraipena ematen dio aurreko bosturtekoan (2011tik 2016ra) eman zen ia 2 puntuko igoerari.

behaketa zuzenaren bidez jasotzen dira; hau da, inori ezertxo ere galdetu barik, hiztunak ohartu gabe jasotzen da hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Gainera, solaskideen ezaugarriak (sexu-generoa eta adina) ere biltzen dira, behaketa bidez hauek ere. Behatutako elkarrizketetan hiztun aktiboa haurra den edo ez ere jasotzen da.

## ERABILERA ADINKA

Adin-tarte ezberdinei erreparatzen badiegu, argi dago zenbat eta adin tarte gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dela euskara Oñatin.

Bost adin-tarte bereizi dira —Haurrak

(<14 urte), *Gazteak* (15-24), *Heldu gazteak* (25-44), *Heldu nagusiak* (45-64) eta *Adinekoak* (>64)—, eta hauek dira emaitzak, euskararen erabilerari dagokionez: *Haurrak* %85.7, *Gazteak* %87.3, *Heldu gazteak* %75.1, *Heldu nagusiak* %55.8 eta *Adinekoak* %47.5.

Goiko datuei erreparatuz, badira azpimarratzeko moduko bizpahiru datu. Alde batetik, *Adinekoak* tarteari dagokionez, kontuan hartu behar da Oñatin adin tarte horretako herritarren %74.8 euskaldunak direla (EUSTATen 2021eko datuak) eta, aldiz, erabilera (%47.5) nabarmen baxuagoa da.

2016ko datuekin alderatuz, adin tarte

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK

## MODA BEREZIA


Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40

honetan ere gora egin du erabilerak, baina 2016ko neurketan beherakada nabarmena antzeman zen (2011ko %52,6tik 2016ko %39,5era), eta orain gora egin badu ere (%47,5), duela hamar urte baino baxuago jarraitzen du.

Kontuan hartzeko beste datu bat zera da: duela 5 urteko kale-neurketarekin alderatuz, *Haurrak*, *Helduak* eta *Adinekoak* tartetean gora egin du erabilerak, baina *Gazteak* adin-tartean 5 puntu jaitsi da, %92.5etik %87.3ra.

Bestalde, azken neurketak argi utzi du beste behin, haurren presentziak eragina duela euskararen erabileran; pertsona nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean, eurak bakarrik daudenean baino.

Herriko gune ezberdinei erreparatu, erabilera altuena (%76,3) herrigunean jaso da, zerbait apalagoa Errekalden (%71,1), eta baxuagoa San Lorentzo-Olakuan (%66,6). Gune guztietan eman da igoera 2016ko datuekin alderatuta, baina nabarmentzekoa da Errekalden eman den gorakada, %59.6tik %71.1era. ■



### ERABILERA ADINKA

Adinean gora egin ahala, euskararen erabilera apalagoa da. *Gazteak* adin tartean erabiltzen da gehien euskara, baina, hala ere, 2016ko neurketako dautekin alderatuz, adin-tarte honetan 5 puntu egin du behera erabilerak.




### Kalean gora, etxean behera

Bost urtean behin egiten den kale neurketaren emaitzek –eskura ditugun bestelako adierazle soziologiko, demografiko eta soziolinguistikoekin batera– errealtatearen argazki bat egiteko balio digute. Eta zer ikusten da 2021ean egindako argazkian? Bada, zeri begiratzen diogun...

Esku artean ditugun azken datuen arabera, Oñatiko kaleetan gero eta euskara gehiago entzuten da (%71,5) baina etxe barruan gutxiago erabiltzen da (%43). Haurren arteko elkarriketak gehienak euskaraz izaten dira (%90), baina erabilera asko jaisten da haurrak eta nagusiak nahastuta daudenean (%63). Altua da euskara dakitenean multzoa (%76,5), baina kopuru hori ez da ia mugitu azkeneko 35 urtean eta ezagutzaren unibertsalizazioa lortzetik urrun gaude oraindik.

Erabilera izan ohi da hizkuntza baten egoeraren adierazle fidagarriena eta oso poztekoa da kalean euskara gehiago egiten dela ikustea. Hala ere, ezin gara bertan goxo egon. Haizea ez dugu aldeko. Zorionez, oñatiarrek euskaraz bizitzeko nahia eta gogoia erakusten dute aukera duten bakoitzean. Horregatik, egindakoari jarraipena eman eta hizkuntza-politika sendoak aplikatzen jarraitu beharra dago, orain arte bezala Oñati eta euskara bat eginda ibil daitezten.



### INGURUKO DATUEN ALDERAKETA

Beste eremu geografikoetako erabilera datuekin alderatuz gero, Oñatiko erabilera datua nabarmen gainera dagoela ikusten dugu. Hala, Euskal Herri mailan %12,6koa da erabilera, EAEn %15,7, Gipuzkoan %30,6 eta Debagoiengan %42,4. Eskualdeko gainerako herrikin alderatuta ere, Oñatin behatu da erabilera handiena (Arrasaten %26,3, Bergaran %47,4, Eskoriatzan %21,1, Aretxabaletan %41,2, Antzuolan %60,5 eta Elgetan %57,9).

**BATUAK S.L.**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)





Gaztainondoari aitortza egiteko eskulturaren proiektuan jardun duten Gure Bazterrak eta Laister artisauek taldeko kideak, eta Udaleko nahiz gaztainondoa eman duen Arrazola sendiko ordezkariak

# GAZTAINAREN KULTURA berreskuratzeko abiapuntua

**Gaztainondoari aitortza egiteko eskultura inaguratu dute, Eltzia parean**

Azaroaren 23an inauguratu zen Gure Bazterrak taldearen ekimenez gaztainondoari aitortza egiteko Eltzia pareko berdegunean ipini duten eskultura. Gaztain erreak jaten eta sagardoarekin txotx eginez egin zen inaugurazioa, udal ordezkariak eta hainbat herritar bertan zirela. Ekaitz Samaniego gasteiztarraren kantez girotu zuten ekitaldia, eta egun batzuk lehenago gartzelaratu zuten Joseba Arregi gogoan, *Hator Hator* abestu zuten han bildutakoek. Ekimenaren sustatzaile taldeko Unai Bikuñarekin hitz egin genuen.

**Hilabeteetako lanaren ostean, iritsi da artelana inauguratzeko eguna. Gustura?**

Bai, gu oso gustura gaude, eta badirudi herritarrei ere gustatu zaiela. Guk behintzat ez dugu ezer negatiborik entzun, eta pozik gaude. Inaugurazio ekitaldira ere uste baino jende gehiago etorri da, joan den astean egindako hitzaldia ere interesgarria izan zen, eta gaztainaren historia honi hasiera emateko ondo dago. Balorazioa positiboa da.

**Gaztainondo enbor handi eta eder bat ikusten dugu hemen, baina horren atzean lan handia**

**dago, ezta?**

Bai. Ordu asko eta izerdi ugari, uda partean egin zituen berotzarren ondorioz batez ere. Baina, beno, kalimotxo eta garagardo batzuk edan ditugu horren bueltan, eta, egia esan, esperientzia zoragarria izan da.

Urtarrila aldera hasi ginen lanean. Artatxuetako basoan zuhaitza aukeratu (Arrazola sendiak dohainik eman digun 300 bat urteko lepatutako gaztainondoa da), basoan bertan garbiketa batzuk egin, ipurditik bota, kamioian Azkonitzara eraman, dena garbitu, saneatu, Gasteizera eraman tratamendua



egitera, bueltan ekarri, bernizatu, barruko burdinezko egitura ipini, brontzeko plakak testuarekin, zeramizko orriak eta bestelako apaingarriak ipini... Ordu asko, bai, baina ederra izan da.

### Oinarrian jarleku ederra ipini diozue gaztainondoari.

Bai, hori da, jendea gerturatzeko, bertan esertzeko, egurra sentitzeko... Iguar parejaren bat ere sortuko da gaztainondoaren bueltan.

### Zer esango zenioke artelana ikustera hurbilduko diren herritarri?

Artelan honen helburua da, batetik, iragana oroitzera; alegia, hemen bazegoela gaztainaren kultura bat, eta ez oso aspaldi, gainera. Esango nioke jartzeko balioan gaztaina izan dena, eta izan ahal dena. Mundua nola dagoen ikusita, etorkizunean zer izango den ez dakigu, baina Euskal Herri burujabe bat nahi baldin badugu egunen batean, uste dut gaztaina barik ezin dela planteatu. Ea hausnarketa horiek egitera eraman dezakegun jendea.

### Gaztainari aitortza egitea da eskulturaren helburua, baina ez hori bakarrik. Haratago ere joan nahi duzue, ezta?

Bai, hau lehen pausua izan da. Arreta erakartzeko modu bat, nolabait esateko. Bere horretan ere bada zer, baina eskulturak ez dauka inongo zentzurik, gerora ez badugu sortzen mugimendu bat eta interes bat gaztainarekiko; gaur egungo baso-ustiapen eredia kuestionatu, herri moduan zer nahi dugun, nora joan nahi dugun... Gaztainaren



Artelanaren osagaien despiezea (Gure Bazterrak)

*"Bere horretan ere bada zerbait eskultura, baina ez luke inongo zentzurik izango, gerora ez badugu sortzen mugimendu bat eta interes bat gaztainaren inguruan"*

kultura berreskuratzen jarraitzea da gure asmoa, gaztainondo landaketak egitea, txertaketa ikastaroak... Poliki poliki.

Datorren astean, esaterako, Aramaion dagoen landaketa bat ikustera joango gara. Euskal Herriko hainbat lekutan (Apilaiz, Arantza...) egin dira landaketak, baina ez da erraza; inork ez daki esaten oso garbi zein barietate landatu eta nola. Beraz, probak

egin beharko ditugu, landaketa esperimentalak egiten hasi.

### Joan den asteko hitzaldian Beñat Itoizek (Euskal Gaztain Etxea) erakutsi zuen posible dela gaztainaren inguruan ekonomia bat sortzea.

Ez da erraza, eskulan asko daukalako eta dedikazio handia eskatzen duelako, baina posible da, bai. Kontua da, Iparraldean badaudela oraindik gaztaina ugari ematen duten gaztainadi zaharrak, eta hemen ez dago.

Nik garbi ikusten dut posible dela. Gaztaina ekoizten bada, merkatua badago, eta hortik bizimodua ateratzea posible da. Beñat Itoizek urtean 16 tona inguru gaztaina batzen du, eta 47 produktu ezberdin (mermelada, eztia, garagardoa, txokolatea, gailetak, risottoa...) elaboratzen ditu, eta inguruko jatetxeetara ere saltzen ditu gaztainak. Gero eta preziauagoa da Iparraldeko sukaldaritzan. Hitzaldiaren ostean gaztaina-tortila eta gaztaina-marmitakoa afaldu genuen.

### Oñatin jende ugari hasi da gaztainak landatzen, ezta?

Bai, gu ere harrিতa geratu gara zenbat herritar hurbildu zaigun gaztainondoak landaketako gogoz. Inork ez daki garbi zein barietate eta nola landatu, baina badago gogoia eta interesa gaztainarekiko.

### Zein mezu zabaldu nahi zenuke?

Itxaropen mezua. Esperimentatzen jarraitzen badugu, eta norabidea ondo markatzen badugu, uste dut urte gutxiren buruan lor dezakegula gaztainaren kultura berri txartatzea gure artean. ■

**EGUR-LAN**  
AROTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop



## 20,9 milioiko aurrekontu proposamena aurkeztu du gobernu taldeak 2023rako, aurtengoa baino %11,3 handiagoa

» 2,8 milioi bideratuko dira inbertsioetara

20.964.904 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du udal gobernuak datorren urterako, aurtengoa baino %11,3 handiagoa.

Diru sarrerei dagokienez, azpimarragarria da Udalak 532.000 euroko ez ohiko laguntza jasoko duela Europako *Next Generation* funtsatik, Natur Eskola eraberritzeko egindako lanei lotuta.

Gastuei dagokienez, udal zerbitzuek %9,7ko igoera izango dute, KPlaren igoera eta energia kostuen garestitzeak eraginda. Gainera, gobernu taldeak %10eko igoera proposatzen du herriko kirol eta kultura arloko elkarteei nahiz auzoei ematen zaien dirulaguntzetarako, talde eta eragile hauek herriari egiten dioten ekarpen handia balioan jarritz. Inbertsioetara 2,8 milioi bideratzea aurreikusten da.

EH Bilduk aurkeztutako aurrekontu proposamenak 1,7 milioi euroko aurrezki prositiboa aurreikusten du, udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatuz.

Izaro Elorza alkateak eta Ogasuna batzordeko buru Xabier Igartuak aurkeztu zuten aurrekontu proposamena, honen izaera soziala azpimarratuz. "Zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak indartzea dakarte, inbertsio mailari ertsiz. Etorkizuneko erronkei behar moduan erantzuteko aurrekontuak dira", gaineratu zuten.

Udal gobernuak oposizioaren esku utzi du aurrekontu egitasmoa, eta abenduaren 15eko osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuko dira 2023ko diru kontuak.

## EGITASMO NAGUSIAK

### ► Hezkuntza

Sancti Spiritus unibertsitateko areto nagusian formaziorako eta ikasteko gelak egokitzea. Turismo bulegoa ere unibertsitateko behe solairuan kokatzea aurreikusten da (290.000 €).

### ► Kirolak

*Pump track* zirkuitu bat egokituko da (100.000€), eta kiroldegiko kantxa urdineko teilatua konponduko da. Aloña Mendirentzkaon dirulaguntza %12,5 handituko da, eta Eskola Kirola elkartearena ere bai (26m€-tik 39m€-ra).

### ► Haurrak eta Gazteria

Haurrentzako jolasguneak hobetuko dira, burutu berri den diagnostikoa oinarri hartuta (100.000€).

### ► Lurralde Antolamendua

Irisgarritasun lanekin jarraituko da (300.000€). Hiri Antolamendu Plana garatuko da (133.000€) eta herri gune historikoa berritzeko plan berezia hasiko da. Kale Zaharra, Aita Madina eta Otadui zuhaiztiko irisgarritasun plana egingo da. Olakuako putzurako exekuzio proiektua idatziko da eta azoka gunea berritzeko proiektua idatziko da. Energia Planean jasotako inbertsioetara 250m€ bideratuko dira.

### ► Ongizatea

Alzheimerre dutenentzako programa bat sortuko da eta Eguneko Zentro Arina abian jarriko da.

### ► Partaidetza eta Garapen komunitarioa

250.000€-ko diru partida bideratuko da Partaidetzako Aurrekontuetan herritarrek lehenetsitako proiektuak gauzatzeko.

### ► Berdintasuna

Herri mailan zaintza arloko beharren eta baliabideen inguruko diagnostikoa egingo da eta Emakumeen Etxea proiektuari jarraipena emango zaio.

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

# TARIFA PERFEKTUA: PREZIO BERAGATIK, **GIGA GEHIAGO**

**FIBRA 300Mb**

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

**39,90€** /HILEAN  
BEZ barne  
Linearen kuota  
barne.

**BETIRAKO**

**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA  
TELF: 943 090 600



ETA GEHITU  
**BESTE LERRO BAT 30GB**  
**1€/HILEAN**  
LEHENENGO 6 HILABETEETAN

BEZa barne Eskaintza 2022/10/31ra arte salmentetarako balio du Fibra 300Mb-ekin Tarifa PLUS 30GB-ekin kontratuzkoan 39,90 €/hileko bakoiko linearen kuota barne. 151,56ko deskontua 3 hilabeteko egonaldiaren menpeko instalazioan. Tarifa PLUS 30GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; kontratu bakoitzeko leuro bat gehienez. Kortsultatu gainerako baldintzak [www.masmovil.es](http://www.masmovil.es) webgunean.

**MÁSMÓVIL**

AHORRA. SIN MÁS.





Udaleko Haur eta Gazteria saileko arduradun politiko eta teknikoak, eta Gaztelekuko bulegoko langileak Maratz lan-orientazio zerbitzuaren aurkezpenean

# Gazteendako lan-orientazio zerbitzua jarriko du abian Udalak

» **Maratz** du izena zerbitzu berriak, eta Gaztelekuko bulegoan eskainiko da

Pertsona langilea, lanean fina dena. Horixe esan nahi du **Maratz** hitzak (Oñatiko euskararen hiztegian jasota dago), eta halaxe izendatu dute herriko gazteei zuzenduta Udalak abian jarriko duen lan-orientazio zerbitzu berria.

Abenduaren 1etik aurrera eskainiko da zerbitzua Gaztelekuko bulegoan, eta, batez ere, herriko gazteen laneratzea samurketako bitartekoak eskaintzea izango da bere egitekoa, Udaleko Haurrak eta Gazteria batzordeko buru Iker Oñatek adierazi duenez. "Udal gobernuak harturiko konpromisoa zen. Gazteen lan aukerak edota ikasketak bukatu osterako bide posibleak ikusarazteko bideak aztertzeke eta abiarazteko beharra identifikatu zen, eta horri erantzutera dator Maratz, lan-orientazio zerbitzua".

Udaleko Sozioekonomia sailarekin elkarlanean eskainiko da zerbitzu berria, baina gazteei begirako orientazio espezifiko eskainiz. "Haur eta Gazteria departamentuari dagokio gazteen behar posibleen detekzio lanean aritzea eta, beharrak igarri gero, irtenbide posibleak eskaintzea. Orain da gazteendako lan-orientazio zerbitzua sortzeko momentua. Ziurgabetasun testuinguru honetan laneratzea ez da erraza gazteenentzat, eta horixe bera errazteko bitartekoak jarri beharrean gaude", adierazi du Iker Oñatek.



## 'MARATZ' ZERBITZUA

Gaztelekuko bulegoan eskainiko da zerbitzua **aurrez aurre**, asteartetik ostiralera (10:00-13:00). **Telefonoz** (943718257) edo **e-postaz** ([gazteinformazioa@onati.eus](mailto:gazteinformazioa@onati.eus)) harremanetan jartzeko aukera ere egongo da.

## Zer eskainiko du lan-orientazio zerbitzuak?

- Gazteek lana bilatzeko aholkularitza eta orientazioa.
- Beken inguruko, lan-ikastaroen gaineko eta lanarekin lotutako dirulaguntzen informazioa.
- Oñatiko eta eskualdeko lan baliabideak ezagutzeko aukera.
- Enpresa berriak sortzeko bitartekoak ezagutzea.
- Gazteei zuzendutako laguntza eta baliabideak eskuratzeko informazioa.
- Sozioekonomia alorrarekin batera, gazteei zuzendutako hitzaldi zein formakuntza posiblea.



## Adin txikikoentzako aisialdiko inklusio zerbitzua jarriko du abian Udalak

» Bazterketa arriskuan egon daitezkeen gaztetxoak detektatu eta inklusio bideetan aurrerapausoak ematea da helburua

Bazterketa egoeran egon daitezkeen 5 eta 15 urte bitarteko Oñatiko haur eta nerabeei zuzendutako aisialdi sozio-hezitzaileko inklusio zerbitzu berritzailea jarriko du abian Udalak, Haur eta Gazteria departamenduaren bitartez.

Inklusioa landuko duen zerbitzu honek bazterketa arriskuan egon daitezkeen adin txikikoak detektatu, bakoitzaren indar-guneak eta beharrak aztertu, eta, harreman hezitzailean oinarria hartuta, estrategiak diseinatuko eta gauzatuko ditu, besteak beste, adin txikikoek herriko baliabide normalizatueta parte hartzeko eta inklusio bideetan aurrerapausoak emateko helburuekin.

### ESKU-HARTZE GUNEAK

Banakoekin eta talde txikiekin egingo dute lan zerbitzu honetan arituko diren profesionalak, eta esku-hartze gune ezberdinetan jorratuko dituzte adin-txikikoen inklusio beharrak, hala nola, Gaztelekua, Ludoteka, Txipistin, udaleku edota gisako zerbitzuetan, eta baita kalean eta inguru irekietan ere. Adin txikikoak dabilzan espazioetan, azken batean. Abenduaren 1ean jarriko da martxan zerbitzua.

Arrazoi ezberdinengatik bazterketa arriskuan egon daitezkeen adin-txikikoak ahalik eta azkarren detektatu eta euren garapen pertsonal osasuntsua sustatzea eta sozializazio prozesua babestea da helburua, horretarako behar dituzten trebetasunak garatuz, eta beraien garapenerako desegokiak diren ohitura, jokaera, emozio eta jarrerak kudeatzen irakatsiz.

## TAO aparkalekuen kontrola egiteko bi pertsona kontratatu ditu Udalak

» Abenduaren leian hasiko dira lanean, eta kaleko nahiz lurpeko aparkalekuak eta bertakoentzat erreserbatutako guneak kontrolatuko dituzte



LANBIDEREren Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako programaren bidez, TAO/OTA guneen kontrol lana egiteko bi pertsona kontratatu ditu Udalak, hurrengo bost hilabeteetarako. Azken orduko atzerapenik ez bada, abenduarekin batera hasiko dira lanean bi langile horiek, eta herrigunean dauden TAO guneak, lurpeko parkinak, eta bertakoentzat erreserbatutako aparkalekuak kontrolatzea izango da beraien egitekoa.

Lan-jardun erdian ariko dira aipatutako bi langileak, bata goizez, eta bestea arratsaldez, eta aipatutako aparkalekuetan atzematen dituzten arau-hausteen inguruko salaketa proposamenak egingo dituzte. TAO zainzaileek ez dute zuzenean salaketak ipintzeko ahalmenik edukiko, baina tiketak ipiniko dituzte arau-hausteren bat egin duten ibilgailuetan, eta udaltzaingora igorriko dute salaketa proposamena.

TAO zainzaileek udaltzainen antzeko jantzia eramango dute soinean, baina kolore ezberdinarekin (urdin iluna eta urdin argia) eta bizkaraldean 'Udal langileak' hitzak azalduko dira.

## Auzo-bideen eta egur-kargalekuen erabilera arautu du Udalak

Auzo-bideen eta egur-kargalekuen erabilera, artapena eta zainza arautzeko ordenantza hasiera bateko izaeraz onartu zuen udalbatzak azaroaren 24ko osoko bilkuran.

Martxoan eman zitzaion hasiera auzo-bideen eta egur-kargaleku publikoen erabilera arautzeko egitasmoari. Auzo-alkateen foroan eta egurraren sektorean diharduten enpresa ezberdinei aurkeztu zaie ordenantza proposamena, eta hauen ekarpenak jaso ostean onartu da ordenantza, eta orain jendaurrean jartzea erabaki da hogeita hamar egun balioduneko epean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean), balizko erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)





## AITORTZA JASO DUTENAK

### 100 ODOL EMATE

- Andrés García Hernández
- Jose M<sup>a</sup> Lertxundi Ugartemendia

### 75 ODOL EMATE

- Miguel Angel Arregi Viciola
- Joxe Ramon Axpe Txintxurreta
- Luis Zubiagirren Txintxurreta

### 50 ODOL EMATE

- Iñaki Odriozola Biain

### 25 ODOL EMATE

- Julian Barbero Rodriguez
- Valentin Egaña Irarreta
- Sergio Salazar Garcia
- Juan Carlos Alberdi Arando
- Rosarito Igartua Erostarbe

(\*) Argazkian falta dira Juan Carlos Alberdi, Rosarito Igartua eta Luis Zubiagirre

# Eskuzabaltasunaren eta fideltasunaren aitortza

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero egin ohi du odola 25, 50, 75 edo 100 aldiz eman duten herritarrei esker ona adierazteko ekitaldia, eskualdeka. Azken urteotan, pandemiaren eraginez, herrika egin izan da ekitaldi hori eta, hala, azaroko odol ateraldiarekin batera egin zen Oñatin, 2021ean kopuru horietara iritsi ziren 11 emaileei diplomak banatzeko ekitaldia.

Oñatiko delegazioko koordinatzaile Pili Irazabalek eskerrik beroenak eman zizkien, urte hauetan zehar erakutsitako konpromiso eta fideltasunagatik.



Gipuzkoan, batuz beste, 20.000 odol transfusio egiten dira urtero eta, gainera, medikamendu asko egiteko ere beharrezkoak dira odolaren osagaiak. Horregatik, odola ematea behar beharrezkoa dela gogorarazi zuen Irazabalek. "Pandemiaren ostean pittin bat erlaxatu egin da jendea. Gainera, orain arte oso konstanteak izan diren emaileak erretiratu doaz, adinagatik, eta beraz, dei berezia egin nahi diegu gazteei, odola ematera animatu daitezten. Etor daitezela proba egitera".

#### » ANDRES GARCIA

##### 100 ODOL EMATE

Bizpahiru lagunekin batera hasi nintzen odol ematen, orain dela 42 urte inguru. Orduan San Martinen ematen genuen odola. Sekula ez dut aparteko arazorik izan, eta osasunak ere lagundu didanez, nahiko konstantea izan naiz, eta egia esan, hemendik irten naizen guztietan harro sentitu naiz, norbaitendako lagungarria izango zela pentsatuz. Gainera, norberaren odola ere berri egiten da eta, beraz, animatu egin nahi dut jendea odola ematera.



#### » JOSE M<sup>a</sup> LERTXUNDI

##### 100 ODOL EMATE

1984an hasi nintzen odola ematen, uda ostean. Gogoan dut garai hartan deialdi berezia egin zela, odol falta zegoelako, eta kuadrillako hiruzpalau lagun hasi ginen ematen. Gaur arte. Ez zait sekula kosta izan odola ematea eta pozik nago, odola beharrezkoa delako, eta badakizulako gauza on bat egiten ari zarela. Laster, 70 urte betetzean, utzi egin beharko diot, baina ordurarte jarraituko dut, eta jendea animatu nahi nuke, beharra dagoelako.



#### » JOXE RAMON AXPE

##### 75 ODOL EMATE

Ama emailea zen eta berak eragindako irrikagatik-edo hasi nintzen neu ere odola ematen 18 urte bete orduko, eta gaur egun ere jarraitzen dut, igarri ere ez dudalako egiten. Gizartean parte hartzeko beste modu bat da; batzuk kirolean edo kultura mailan aritzen dira musu-truk, eta hau laguntzeko beste modu bat da. Gaur egun txanda hartu eta ordubetean dena eginda daukazu. Beraz, animatu egingo nuke jendea, probatzera behintzat.



#### » PILI IRAZABAL

##### ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Eskertzekoa da odol emaileek, oro har, duten ardua eta konpromiso maila. Horregatik, elkartearen izenean eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei. Odola behar beharrezkoa da, ez bakarrik transfusioak egiteko, baita medikamenduak egiteko ere. Bizitza asko salbatzen dira ematen dugun odolari esker. Horregatik, ahalegin berezia egin behar dugu denon artean, odol emaile berriak, batez ere neska-mutil gazteak, erakartzeko.







#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale  
#NiTokikozale



Dorleta  
d'Or



Oihana  
Umerez



Aitor  
Bellotza



1 "Asko gustatzen zait parapentean hegan egitea"



2 "Santanderreara joan nintzen Erromara zihoan hegazkin bat hartzera, eta Porton amaitu nuen"



3 "Ez dakit zergaitik, baina fobia handia diet tximeletei"

Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak. Erantzun zuzenak, hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1  2  3

# Berrikuntzekin dator XV. Erakusleiho lehiaketa

Ohiko sariez gain, **Haurren Saria** ere emango da aurten, 5-12 urte arteko gaztetxoek botoz erabakiko dena

Urtero eman ohi diren sariez gain, aurten, lehendabizikoz, HAURREN SARIA ere emango da Oñatiko XV. Erakusleiho Lehiaketan. **300 euroko** saria izango da eta 5-12 urte arteko gaztetxoek botoz erabakiko da irabazlea.

Bozka emateko, orrialde hauetan agertzen diren bozka-txartelak moztu eta Txaloka ludotekan nahiz Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo diren hautestontzietara eraman beharko dira, **abenduaren 20ko** eguerdiko 14:00ak baino lehen. Haur bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta bozketan parte hartzen duten haurren artean 100 euroko bonu bat zozketatuko da, herriko saltokietan gastatzeko.

## GAINERAKO SARIAK

Haurren Sariaz gain, urtero eman ohi diren gainerako lau sariak ere banatuko dira erakusleiho lehiaketan parte hartzen duten saltokien artean. Alde batetik, erakusleiho-apainketa arloko adituz osatutako epaimahaiak erabakitako hiru sari emango dira, 500€, 300€ eta 200€-koak, eta, bestetik, Herritarren Saria (500€), herritarren boto gehien jasotzen duenarentzat.

Herritarren Saria aukeratzeko bozketan Internet bidez egingo da, Udalaren webgunean (www.

oñati.eus) prestatuko den lehiotan. Orrialde honetan bertan ipini dugun QR kodeak ere bozka emateko webgunera eramango zaitu, eta bertan egongo dira ikusgai lehiaketan parte hartuko duten saltoki guztien erakusleihoak.

Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta bozkatzeko azken eguna abenduaren 20a izango da, eguerdiko 14:00etan. Bozketan parte hartzen duten herritarren artean 100 euroko bonu bat zozketatuko da, Oñatiko saltokietan gastatzeko.

## ABENDUAREN 12rako PREST

Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoak abenduaren 12rako prest egon beharko dira, eta hala mantendu beharko dira hilaren 31ra arte, gutxienez. Gaueko 22:00etatik aurrera erakusleihoaren argiztapena ez da beharrezkoa izango. Udalak 50€-ko laguntza emango dio parte hartzaile bakoitzari, materiala eta argindarra ordaintzen laguntzeko.

Erakusleihoetan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira, eta erakusleihoen balorazioa egiterakoan honako hauek hartuko dira kontuan: konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna.



## HERRITARREN SARIA

**100€-ko** erosketa bonu bana zozkatuko da Haurren Saria eta Herritarren Saria erabakitzeko bozketan parte hartzen duten herritarren artean



## OÑATIKO XV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

*haurren saria hautatzeko orria*

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire **botoa** erakusleiho honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: \_\_\_\_\_

NIRE IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

**ZOZKETA:** botoa eman duten haurren artean **100 euroko erosketa-bonua** zozkatuko da.

### DATUEN TRATAMENDUA

**ONARTZEN DUT.** Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarriko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.



## PAKE LEKU SARIA jasotzeko hautagaiak proposatzeko epea zabaldu dute

**Herrigintzan nabarmendu diren herritarrek saritzea da helburua**



Herrigintzan eta gai sozialetan nabarmendu diren pertsonen lana, ibilbidea eta balore pertsonalak aitortzea da Pake Leku elkarteak emango duen sariaren helburua. Hautagaia Oñatiko edozein herritarrek aurkeztu ahal izango du abenduaren 22a baino lehen, Pake Lekuko tabernan egongo diren inprimaketan, hautagaiaren merituak azalduz.

Abenduaren 27an Pake Lekuko Juntako epaimahaiak hautagai guztien artean egokiena deritzona aukeratu du, eta erabakia irmoa izango da. Hilaren 29an Pake Lekun bertan egingo den ekitaldian emango da saria, oroigarria eta bi pertsonentzako afaria jubilatuen elkartearen bertan.



## EMAKUMEEN ETXEETARA BISITAK

Azaroaren 4an eta 18an Azpeitiko, Zumaiako, Hernaniko eta Donostiko emakumeen etxeak bisitatzeko aukera izan zuten hainbat herritarrek. Hogei pertsonako taldetan, emakumeen etxeen baitako aniztasuna ezagutzeko aukera izan zuten.

Espazioen antolaketa, baliabide material eta pertsonalak, etxea kudeatzeko eta antolatzeko modua... Egun martxan diren emakumeen etxeak askotarikoak dira, eta eredu bakoitzaren abantaila eta desabantailak ezagutu zituzten bisitariek.

**Zer nahi dugu Oñatirako?** Hori izango da urtariletik aurrera egingo den parte hartze prozesuan erabaki beharko duguna.



## Manifestazio jendetsua, Joseba Arregiren egoera salatuz

SAREk deituta manifestazio jendetsua egin zen joan den larunbatean, gradu progresioari Auzitegi Nazionalako fiskalak jarritako errekurtsoa onartu eta berriro espetxeratu duten Joseba Arregiren egoera salatuz. Mendekutat kalifikatu zuen SAREk eta egoerari buelta emateko lanean jarraitzeko deia luzatu zuen. Udalbatzak ere adierazpena onartu du, Arregik (76 urte) espetxean ia 31 urte eman dituela gogoraraziz.



## OÑATIKO XV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

*haurren saria hautatzeko orria*

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire **botoa** erakusleihen honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: \_\_\_\_\_

NIRE IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

**ZOKKETA:** botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da.

### DATUEN TRATAMENDUA

**ONARTZEN DUT.** Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarriko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.







Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Zer gertatu zen Irunberrin?

**Ander Lizarralde**

Herriko gazte batek galdetu dit zer gertatu zen Irunberrin, 1990eko ekainak 25-26an. “Hi, mutikuá, hiri ze erakusten dostai ba eskolan??”, esan diot. “Suizidau egin ziran?”, galdetu dit. Ez ziren suizidau, azaldu diot, Ion Lizarralde andoaindarra eta Susana Arregi oñatiarra atxilotu, torturatu eta ... egin zituzten. Irunberriko arroillak bi tunel ditu sarbide moduan, eta biak itxi zituen guardia zibilak. Handik ezin zitekeen inor irten. Hogei ordu geroago topatu zituzten Ionen eta Susanaren gorpuak. Kilometro bat eta hirurehun metro daude tunel batetik bestera, eta Haitzuloko moduko paretatzarrak alde bietara. Ehun guardia zibiletik gora, rastrearako txakurrek lagunduta... ezinezkoa da 20 ordutan hildakoen gorpuak ez aurkitzea. Ezinezkoa! Nahikoa lirateke 30 minutu. Eta mutikoak esaten dit, uste baino hobeto informatuta dagoela erakutsiz, “orduan zergatik esan zuen PNV-k suizidioaren azalpena zuzena zela?”, eta erantzun diot; “Ah! Hori eurairi galdetu!!”.

## Euskal jendarteari agiria

**Asier Guridi**

Nik, Asier Guridi Zaloña, Venezuelako Errepublika Bolibartarrean euskal iheslari politikoa, gaur, asteartea azaroak 15, Caracaseko Saimeren egoitza nagusiaren aurrean, nire nortasun-agiria eskatzeko asmoz mobilizazio eta borroka dinamika hasi dudala jakinarazten dut, Venezuelako Errefuxiatuen Komisio Nazionalak, Defentsa eta Atzerri Ministerioen bozkekin, erabakitakoari jarraiki. Horrela, bada, nortasun-agiriak ematen dituen Saimere instituzioa Conare-k (Comisión Nacional de Refugiados) harturiko Estatu-erabakia desobeditzen eta bete gabe uzten ari da.

2021eko abenduaren 7an, arrazoi jakin-egatik errefuxiatu-izaera aitortzen zidan Conare-ren dokumentua eman zidatenean, amaitutzat eman nuen Caracasen Espainiako Kontsulatu Orokorren aurrean egiten ari nintzen gose greba. Aipatu dokumentuan,

Venezuelako errefuxiatu eta asilodunen lege organikoaren araudiko 13. artikulua dioenari jarraiki, Saimere instituziora joan eta “oinezko” gisa nortasun-agiria egitea agintzen zitzaidan. Baina Saimere instituzioak behin eta berriz erantzun gabe utzi ditu nik nortasun-agiria eskatuz aurkeztu dizkiodan eskakizunak; era berean, aurkezturiko idatzizko eskakizunen kopia egiaztagiri gisa sinatu eta zigilatzeari uko egin dio, haien aldetik behin da berriro gertatzen ari den isiltasun administratiboa babesteko. Saimere instituzioak ez ditu eskariak erantzuten, ez bai eta ez ez; jaramonik egin gabe eta indokumentuta uzten ditu Venezuelako errefuxiatu-izaera aitortua duten pertsonak. Hau ez da beti horrela izan; adibidez, Dante Rivas Saimereko zuzendari zelarrik, Conareko ordezkari batek errefuxiatua Saimereko egoitzara laguntzen zuen eta errefuxiatua nortasun-agiri batekin ateratzen zen. Ez da Asier Guridi Zaloña euskal iheslari politikoa aurkako neurri bat; izan ere, Asier Guridi bezalaxe, azken garaian errefuxiatu-izaera aitortu zaien pertsonen ere eragiten die Saimeren azkenaldiko jarrerak edo erabakiak.

Venezuelako Errepublika Bolibartarreko Konstituzioari atxikita egingo den eta Caracaseko Baralt etorbideko Saimeren egoitza nagusiaren aurrean aurrera eramango den protestaldi baketsu honek izango duen lehen faseari elkarretaritze iraunkorra deituko diogu. Lehen fase honen helburua, informazioa zabaltzea eta elkartasuna bilatzearekin batera, Saimereko zuzendaritza, Conarek agindu bezala, Venezuelako errefuxiatu-izaera aitortu zaien pertsonen nortasun-agiriak ematen has dadin lortzea da. Ondoren, nortasun-agiria lortu arteko borrokaldiaren bigarren fase bat hasiko litzateke. Hastera noan protesta hau errefuxiatu-izaera aitortua didan Venezuelako Estatuaren kontra ez doala argiro azpimarratu nahi dut; aitzitik, Conareren agindua etengabe desobedituz errefuxiatuei nortasun-agiria emateari muzin egiten dion Saimere instituzioaren kontrako protestaldi zuzena dugu.

Besteak beste, Asier Guridik 14 urteko semea du, Saimerek aitaren nortasun-agiriaren eskakizunei jaramonik ez egitearen ondorioak jasaten ari dena. Saimerek eragindako indoku-

**Mekanizazio zerbitzu integralak****Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es**

mentazio egoeran blokeatuta egotearen ondorioak dira urte askoz semearen doku-mentuak zuzendu eta ordenan jarri ezinik egotea.

## Gabonetako elkartasun azokaren harira

Iratxe Barruso, Elkar Heziko Kultura batzordea

Elkar Hezi ikastetxeko Ikas Komunitateak aurten abenduan antolatu ohi duen elkartasun azokak dituen helburu pedagogikoak beste bide batzuk erabilia lantzea erabaki du.

Pandemiak behartuta, urteroko dinamikarekin moztu eta gero, hausnar prozesua zabaldu zen elkartasuna ulertzeko moduen inguruan. Iaz azoka formatu txikian antolatzeko arrazoia ilusioa piztu eta normaltasunaren bidean ginela adieraztea izan zen, baina aurten hainbat ikasturetetan elkar-lanean eraikitako solidaritaterako guneari atsedena eman eta bide berriak esploratzeko helburuz etena egitea eta indarberritzea egokitzen zaigu.

Gipuzkoako Foru aldundiak bideratutako Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren barruan lan zuzena ZEHAR eta Euskadiko Emakume Ijitoen elkartarekin egingo da. Eskola barruan eta Ikas Komunitateak zientifikoki probatuta dituen jarduera arrakastatsuetan oinarrituta lanketa egingo dugu datorren ikasturtean honen guztiaren fruituak zuokin partekatze asmoz.

Esan beharrik ez dago eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegula urte hauetan guztietan bidaide izan zaituztegun guztioi, mundu hobe bat posible delako ametsa errealitate egin izanagatik. Datorren abenduan elkar ikusiko dugulakoan.

## OHAR ETA DEIALDIAK

### ▶ Abenduan ez da odol ateraldirik izango Oñatin

Abenduan jai-egun eta zubi asko daudenez, ezin izan dute datarik eskaini Oñatirako eta, beraz, hil honetan ez da odol ateraldirik izango geurean, herriko odol emailen elkartetik jakinarazi dutenez.

### ▶ Doluari buruzko hitzaldia

'Gabonak... eta etxean aulki bat hutsik' izenburupean, Izaskun Andonegik (Bidegin elkarte) hainbat aholku emango ditu doluan dauden pertsona eta familientzat lagungarriak izan daitezkeenak Gabonak igarotzeko. Zenbait herritarren testigantzak ere entzungo dira. Abenduaren 17an, Arantzazuko Asis Topagunean, 10:30etan.

### ▶ Energia sistemako oligopolioaren inguruko hitzaldia

'Sistema oligopolioarekin amaitu' izenburupean, gaur egun energia sistema nola dagoen erata eta enpresa gutxi batzuek duten boterea ezagutzeko aukera egongo da ekonomia gaietan aditua den Isidro Esnaolaren eskutik. Abenduaren 13an, kultur etxean, 18:30etan.

### ▶ Durangoko Azokara joateko autobusa

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta. Abenduaren 9an, goizeko 9:45etan Kalegoienako geltokian irtengo da autobusa, eta 14:15ak aldera itzuliko Durangotik. Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak daude gonbidatuta.

### ▶ San Silbestre lasterketa

Pandemiak eragindako etenaren ostean, aurten San Silbestre lasterketa egingo da abenduaren 31n, Antxintxiketan kirol elkarteak antolatuta. Arratsaldeko 16:30etan hasiko da nagusien lasterketa. Aurretik, 16:00etan, gaztetxoek lasterketak egingo dira. Izen-ematea, 15:00etatik aurrera, plazan.

### ▶ Hitzaldi musikatua, Oñatiko Esperientzien Gelan

Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta, Mikel Inuntziaga 'Inun' kantariaren hitzaldi musikatua egongo da abenduaren 21ean, Santa Ana antzokian, 10:00etan. Musikaren bitartez sormena, euskal kontzientzia eta kulturarako grina pizta da saioaren helburua. Sergio Mayoral tronpeta jole bikainaren laguntza ere izango du emanaldian zehar.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasesores.com  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA



Gure ekintzen berri emango duen atala...

## ETA URTEA AURRERA DOA...

**I**kasturtea irailean hasi genuenetik Gaztelekua ekintzez beteta izan dugu, besteak beste Arimen gaean Oñatiko haurrak beldurtzen ibili ziren Gaztelekuko "bizilaguna" den Felix baserritarra eta bere lagunak, a ze nolako bi egun beldurgarriak bizi izan genituen!

Horretaz gain Kuboan zeramika tailerra antolatu genuen, eskuak zikindu eta martxan, artista gazte ederrak ditugu herrian, eta primeran pasatzeaz gain, parte hartzaileek artelan ederrak eraman zituzten etxera.

Azaroaren 20an Gaztelekuko XXVIII. Xake txapelketa antolatu zen. 28 urte eta gero oraindik ere txapelketa arrakastatsua izaten jarraitzen du, eta honetan kanpoko maila handiko jokariak aritzeaz gain Gaztelekuko erabiltzaile batzuek parte hartu zuten, eta horretaz gain sari batzuk ere irabazi zituzten.

Urtea aurrera doa, baina badirudi azken bi urte gogorren ostean, aurtengo Gabonetan betiko martxara bueltatzeko aukera izaten ari garela, eta guk aprobetxatu nahi dugu.

Hala ere, Gabonak aurretik oraindik ere, Amaia Diaz de Monasterioguren eta Amaia Aierberen eskutik, LH5-6 eta DBH1ekoei zuzenduta elikadura kontzienteari buruzko tailer bat izango dugu, azken hilabeteetan egiten ari diren tailerrekin jarraituz.

Ondoren, Kuboan ohiko Gabonetako irteerak berreskuratuko ditugu eta abenduan zehar egingo ditugun ekintza berezi batzuk ere prestatzen gabiltza: "laser TAG", Olentzero eta Mari Domingiren bila, Gabonetako eskulanak, Gabonetako pelikula, ... Topalekuan ere ekintzaz beteta dator abendua, irteerak, ekintza bereziak... Ahaztu barik azken urteetan sekulako arrakasta izan duen "Golazen 9.0" ikuskizuna, nahiz eta hau Santa Ana antzokian antolatuko dugun. Horretaz gain, honez gero jakinaren gainean egongo bazarete ere, Gaztelekuko kontzertuak ere bueltan dira, *Pasadena* taldearekin hasi genuen denboraldia, ondoren *Brigade Loco* eta *Potemkin* bezalako beste talde batzuk ere pasatu dira, eta Gabonen inguruan Ruper Ordorika izango da gure oholtza gainean, ederra izango da.

Azkenik aipatu, Gabonetan zehar Gaztelekua honako egunetan soilik egongo dela itxita: abenduaren 24ean, 25ean eta 31an, eta urtarrilaren 1ean eta 6an. Beste egun guztietan gure ohiko ordutegian arituko gara.



Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI







ARAMBURU  
BITXI-DENDA

ZOZKETA

600€

60. URTEURRENA  
ELGOIBAR

20. URTEURRENA  
OÑATI

Elgoibarko dendaren 60. urteurrena eta **Oñatikoaren 20. urteurrena** dela eta, gure bezeroen konfiantza eta fideltasuna eskertu nahi dugu.


Eta, horretarako, abenduan gurean erosketak egiten dituzten herritarren artean, **600€ zozketa** egingo dugu. Eskerrik asko urte guztiotan gudan izan duzuen konfidantzagatik!

KALE BARRIA 55 • TEL: 943 534 534 • OÑATI | SAN FRANCISCO 26 • TEL: 943 742 535 • ELGOIBAR

# Onenen pare da berriz ere Irati Astondoa

> Amatasunagatik urtebete geldi egon ostean, Euskal Herriko eta **Sherpa Ai** txapelketetako podiumera igo da Oñatin bizi den aizkolari bizkaitarra

**A**ma izan ostean, iazko udazkenean hartu zuen berriz ere aizkora, urtebeteko Atenaldiaren ostean, eta, poliki-poliki, lehenego maila berreskuratzea lortu du Irati Astondoak (Zeanuri, 1991), azken bost urteotan Oñatin bizi den aizkolariak. Astebetean bi aldiz igo da podiumera; Euskal Herriko txapelketan hirugarren sailkatu zen, eta Sherpa Ai txapelketa nagusian bigarren. Orain, abenduaren 21ean Donostian jokatu den Urrezko Kopa du begiz jota.



Irati Astondoa, azaroaren 12an Bilboko Miribillan jokatu zen Sherpa Ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko une batean (Argazkiak: Elena Villaizán)

**Birritan igo zara podiumera azken bi txapelketa nagusietan. Gustura, pentsatzen dut.**

Bai, Euskal Herriko txapelketan ez nintzen ondo sentitu, korreetan ez nuen asmatu, eta 3. sailkatu nintzen arren, uste dut 2. postua ere egin nezakeela. **Sherpa Ai** txapelketan hobeto aritu nintzen, eta kontuan hartuz Nerea Arruti (txapelduna) besteok baino koska bat gorago dagoela une honetan, pozik bigarren postuarekin.

**Amatasunagatik urtebete geldi egon ostean, onenen pare zaitugu berriz ere. Espero al zenuen?**

Iazko udazkenean hasi nintzen berriz ere aizkorari heltzen eta, egia esan, hasieran galduta sentitzen nintzen. Zorionez, baina, 'ekina baliagarri' esan ohi dugu Arratian, eta ekinaren ekinez, poliki-poliki erritmoa hartzen joan nintzen. Erakustaldi batzuetarako deitu zidaten eta, ekainean, bularreko minbiziaren aurkako ekitaldi batean parte hartu nuen Gordexolan; 2 metroko enborra moztea eskatu zidaten, eta bero izugarria egin zuen arren, ondo ikusi nuen neure burua eta bulzada handia izan zen niretako. Uda partean Ramon Latasa saria (Sunbillan) eta Elgoibarren lehen aldiz jokatu zen herri kirolen triatloi txapelketak irabazi nituen, eta, poliki-poliki, lehenego maila berreskuratzea lortu dut.

**Azken bi txapelketa nagusietan Nerea Arruti gailendu da, eta badirudi gaur gaurkoz garai ezina dela.**

Hala ematen du, bai. Ezustekoa izan da denontzat. Orain dela urtebete azaldu zen pentatloian; gero harri-jasotzen hasi zen, baina ez zitzaion askorik gustatu eta aizkora zentratu da.

Fisikoki oso indartsua da, eta erakustaldiren batean berari irabaztea lortu dudan arren, txapelketetan argi eta garbi ari da nagusitzen.

**Zein duzu hurrengo erronka?**  
Abenduaren 21ean Donostiako





Sherpa Ai txapelketako emakumeen eta gizonen podiuma.

Trinitate plazan jokatu den Urrezko Kopa. Plaza berezia da; orain arteko ekitaldi guztietan parte hartu dut eta ilusio berezia egiten dit. Gainera, egin beharreko lanak gogortu egin dituzte (45 ontzako bost enbor moztu beharko ditugu) eta hori ere gustatzen zait. Azken batean, emakumeok ere erakutsi behar dugu aurrera goazela aizkoran, eta gero eta lan handiagoak egiteko gai garela. Arruti baldin badago, zaila izango da irabaztea, baina podiumean egotea gustatuko litzaidake.

### **Nerea Arrutik bera eta puntako beste herri kirolari batzuek *crossfit*-a egiten dute entrenatzeko. Moda kontua da ala badago oinarri bat horren atzean?**

Garbi dago indarra landu behar dela, baina *crossfit*-a egiteagatik bakarrik ez da irabazten. Hori oso konprobatuta daukat. Nik nire prestatzaile fisikoa daukat, baina ez naiz *crossfit* zalea.

### **Zer da inportanteena aizkoran aritzeko?**

Teknika oso garrantzitsua da lan luzeetarako, baina indarrak ez badago, alperrik da teknika ona edukitzea. Hauspoa ere garrantzitsua da; nire kasuan, adibidez, hauspoari esker menderatu izan ditut kolpezi ni baino gehiago diren aizkolariak.

Aizkoren pisuan ere aldea egoten da. Nerea Arrutik esaterako, 2.400 gramoko aizkora erabiltzen du (gizonen parekoa), eta nik 2.150-ekoa kanpoko lanetarako, eta 1.900-ekoa barrurako. Kolpe baten edo bestearen inpaktua oso ezberdina da.

### **Zertan hobetu dezake Irati Astondoak?**

Batez ere nerbioak kontrolatzen. Txapelketetan oso urduri jartzen naiz, eta horrek akatsak egitea ekar dezake, azkeneko Euskal Herriko txapelketan bezala. Hori kudeatzen ikasten dudanean saltotoxo bat eman dezakedala uste dut.

Indarrean ere badut hobetzeko aukera, baina oraindik bularra ematen ari naiz eta elikadura ere ez nabil behar beste zaintzen.

### **Sherpa Ai txapelketako finalean Zetak, Sune eta Zea Mays taldeak ere aritu ziren. Gauzak aldatzen ari al dira aizkora munduan?**

Beste publiko bat erakartzeko gogoia eta saiakera dago horren atzean; 4.000 lagun batu ziren Miribillan, GOL TV-n ere eman zuten... Helburua lortu zela ematen du, baina niri behintzat ez litzaidake gustatuko betiko txapelketa giroa galtzea. Ondo dago halako saiakerak egitea, baina adineko publikoa ere, betiko herri kirol zaleak zaindu egin behar ditugula uste dut. ■

## » MOTZEAN



### 'Kirol boluntariora kolokan?'

**MAHAI-INGURUA** Udaleko kirol sailak antolatuta, herrian eta, oro har, profesionala ez den kirol eremuetan geroz eta gehiago pairatzen den arazo bati buruz jardungo dute: boluntariora. Geroz eta urriagoa den figuraren egoeraz eta etorkizunaz hitz egingo da **abenduaren 21ean** (19:00) Santa Ana Aretoan.

Aratz Losadak gidatuta, Oñatiko kirol eragile ezberdinen esperientzia ezagutuko da, eta gonbidatu eta bertaraten diren ikusleen artean, arazo honi konponbide bat bilatzen saiatuko dira. Saioa girotu eta osatzeko, Maria Cruickshank aktorearen bakarrizketa umoretsu bat ere ikusi ahal izango da bertan. Solasaldian esan direnak lantzen jarraitu nahi dutenek, horretarako aukera izango dute ondoren egongo den luntx irekian.

### 'Nerabeak zirikatatu, familiak zirikatzekeo'

**MAHAI-INGURUA** POZ zerbitzuak antolatuta, nerabe, guraso eta hezitzaileei zuzendutako saio teoriko-praktikoa egingo da **abenduaren 15ean** (kultur etxean, 17:00-19:00). Pandemia eta konfinamenduen ostean gure gazteen osasun fisiko, mental eta emozionala ezagutu eta dituzten beharrei erantzutea da helburua. Amaia Diaz de Monasterioguren (dietista-nutrizionista), Pello Uriarte (Jarduera Fisikoaren Zerbitzuko orientatzailea), Jone Galdos (Psikologia fakultatea), Maria Cruickshank (aktorea) eta herriko hiru eskoletako gazteek parte hartuko dute.

### Bizkaiko kosta: Plentzia - Armintza

#### **MENDI IRTEERA**

Aloña Mendik antolatutako urteko azken irteera Bizkaiko kostan barrena egingo da. Plentzian abiatu eta ibaiari jarraituz Gorlizerraino iritsiko dira (ibilbide urbanoa), eta, ondoren, itsas ertzetik jarraituz Billano lurmuturrera iritsiko dira, bere bunkerrekin. Ermua tontorra (289m.) gainditu ostean, Armintzako portuan amaituko da ibilaldia. Ondoren bazkaria egingo dute garagardotegi batean. **Abenduaren 18an** izango da irteera, baina **hilaren 15a** baino lehen eman behar da izena ([alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com)).







Hogeita sei musikari ariko dira Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean

# AEQUUS ENSEMBLE

Ganbara Faktoriaren baitan sortu den orkestrak estreinaldiko kontzertua eskainiko du

**Abenduaren 4an** izango da emamaldia, Bidaurretako monastegian, 19:00etan

Oñatiko Ganbara Faktoriak urrats berria eman du. Urrats garrantzitsua, gainera, orkestra propioa sortu duelako taldearen baitan, eta horri esker proiektu eta erronka berriei ekiteko aukera izango baitute Ganbara faktoriako abesbatzek.

*Aequus Ensemble* du izena orkestra berriak eta 26 musikari ariko dira Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean: biolinak (15), biolak (5), biolontxeloak (3) eta kontrabaxuak (2).

Oraingoz hari instrumentuak dira denak eta soka talde gisa ekingo dio bideari *Aequus Ensemble* taldeak, baina datorren urtera begira haize familiako instrumentuak sartzeko asmoa dute, orkestra sinfoniko bihurtzeraino.

## MUSIKA ESKOLAREKIN ELKARLANEAN

Zuzendariak gain, hiru oñatiar daude orkestra berrian (Sara, Maialen eta Luis Txintxurreta



anai-arrebak). Gainerakoan, Gipuzkoa eta Arabako musikari ezberdinez osatu da taldea. "Oñatin sortu egin behar da oraindik mugimendua, baina Jose de Azpiazu musika eskolarekin elkarlanean aritzeko asmoa dugu, etorkizunean herriko musikariek ere orkestra batean jotzeko aukera izan dezaten", adierazi digu Aitor Biain zuzendariak. "Ildo horretan, 2023an zehar musika eskolako haurtzako kontzertu

**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



pedagogiko bat antolatuko dugu, orkestraren mundua barrutik ezagutzeko aukera izan dezaten. Azken batean, beraiek izango dira etorkizuneko musikariak eta kontsumitzaileak".

### ERRONKA BERRIAK

Taldearen dinamikari dagokionez, *Aequus Ensemble* taldeak entsegu intentsibo bat egingo du hilero, eta asmoa da zailtasun handikoak eta interesgarriak diren programak lantzea.

Oraingoz Oñatin eskainiko dituzte kontzertuak, baina etorkizunean herritik kanpora ere eramango dute taldearen lana. Helburua, poliki-poliki taldea handitzea da, Oñatik merezi duen moduko orkestra sinfonikoa izan dezan, eta herriko kulturari bultzada berri bat emateko.

Albiste pozgarria herriarentzat eta, bereziki, musika klasikoaren zaleentzat, aurrerantzean goi mailako musika sinfonikoaz gozatzeko aukera izango baitute herrian bertan.



Oraingoz soka talde gisa sortu da *Aequus Ensemble* orkestra, baina datorren urtean haize instrumentuak sartzeko asmoa dute, orkestra sinfoniko bihurtzeraino




Ganbara Faktoriako abesbatzei erreperitorio eta erronka berriei aurre egiteko aukera emango die

## ESTREINALDIKO KONTZERTUA

Abenduaren 4an emango du estreinako kontzertua *Aequus Ensemble* orkestrak Bidaurreta monastegian, 19:00etan. 50 minutu inguruko emanaldia izango da eta garai klasikotik garaikiderainoko musika interpretatuko dute.

1. *Divertimento kv. 138* (W. A. Mozart)
2. *String symphony n°10* (F. Mendelsshon)
3. *Improptum n°5-6* (J. Sibelius)
4. *Adagio op 11* (S. Barber)
5. *String Symphoni op.4* (B. Britten)  
-*Boisterous bourrée*  
-*Playfull pizzicato*  
-*Sentimental Saraband*
6. *Palladio* (K. Jenkins)  
-*Movimiento I*  
-*Movimiento II*  
-*Movimiento III*



**Sarrerak** (5€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean, Txokolateixan eta leihatila digitalean eskura daitezke. **Streaming** bidez ere jarraitu ahal izango da kontzertua Goiena telebistan eta Ganbara faktoriaren kanalean

eskerrik asko **OTAMENDI** bezero guztioi  
TABERNA

MARTZELINO ZELAIA 1  
TEL.: 943 53 26 18  
Gabon jai zoriotsuak!



© Asier Egaña



Gauza txikien goxotasunari kantatzen dioten zazpi abesti biltzen ditu *Hygge* diskoak

# Bere lehen diskoa plazaratu du Aitor Regueirok

J oan den igandean Antixena gaztetxean emandako kontzertuan aurkeztu zuen Aitor Regueirok *Hygge* diskoa, bakarkako bere aurreneko lana. Danierako hitza da *hygge*, goxotasuna eta etxekotasuna adierazteko erabiltzen dena, eta oso ondo islatzen du diskoan bildu dituen zazpi kantuetako giroa. "Musika lasaia da, goxua, belarritik samur sartzen dena, etxeko goxotasunean entzutekoa", azaldu du musikariak. "Etxetasunari buruz hitz egiten duten kantuak dira; norbera besteentzat etxe izateaz, edo inguruko artean etxea edo babesia aurkitzeaz".

Aitorrek berak sortutako kantak dira denak, bai musika eta bai testuak ere. Bi gitarra, akustikoa eta elektrikoa, eta sintetizadorea erabili ditu kantuak grabatzeko, eta Ane Irazabal

musikari oñatiarraren laguntza izan du ahotsetan.

Zestoako Gaztain estudioan grabatu du diskoa, Eñaut Gaztañaga soinu teknikariarekin (*Ezpalak* taldeko kitarrajotzailea), eta oso gustura dago emaitzarekin. "Asko gustatzen zait Eñauten lan egiteko modua, eta disko honetako abestiak janzten egin duen lana ere oso ona iruditzen zait".

Aitorrek berak sortu eta grabatutako lan pertsonala bada ere, zuzenekoetan taldean defendatzeko asmoa du, formatu rockeroagoan (bi gitarra, baxua eta bateria). Hala egin zuen Gaztetxeko aurkezpen kontzertuan, eta hala egingo du etorriko direnetan ere. "Bakarka oso zaila izango zen diskoak dituen efektu guztiak defendatzea, produkzio lan handia



**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**ARKITEKTURA**

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadetan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 \* amaiigartua@gmail.com





**Kamisetetarako  
Ilustrazioak**  
—  
Ione Larrañaga  
Iraia Okina  
Periferiko neska

baitu diskoak; beraz, oinarrian kanta berberak badira ere, zuzenekoetarako bueltatxo bat eman diegu, distortsio apur bat sartu dugu, eta uste dut hobe dela horrela". Ondarruko hiru musikarirekin osatu du taldea zuzenekoetarako.

**ILUSTRATZAILEEI AITORTZA**

Ilustrazioek leku nabarmena dute Aitorren aurreneko lan honetan. Azaleko irudia Nahia Iglesias 'Marrabila' ilustratzaile bilbotarrarena da, eta barruko liburuxkarako ere kanta bakoitzeko ilustrazio bana sortu du irudigile bizkaitarrak.

Diskoarekin batera, azaleko irudia daramaten poltsak eta hiru ilustratzaile ezberdinen (Jone Larrañaga, Iraia Okina eta Periferiako neska) ilustrazioekin apaindutako kamisetak ere atera ditu Aitorrek. "Diskoko esaldi ezberdinak eman nizkien, eta horiek iradokitako irudiak sortu dituzte. Esperientzia polita izan da, eta gustura nago emaitzarekin. Euskal ilustratzaileen lana balioan jarri eta nolabaiteko aitortza egin nahi izan diet horrela".

Eltzia eta Arrano tabernetan, edo plataforma digitaletan eskura daiteke *Hygge* diskoa (10€). Kamisetak (15€) edo poltsa (8€) nahi izatera, [aitorhygge@gmail.com](mailto:aitorhygge@gmail.com) helbidera idatzi. Dena batera 30€-tan eskura daiteke.



**Musika eskolako ikasleak  
Arrasateko Akordeoi Lehiaketan**

Abenduaren 2tik 4ra bitartean ospatuko den Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Jose de Azpiazu musika eskolako hiru ikaslek (Irati Galdos, Irati Jausoro eta Uxue Otxoa-Aizpurua) parte hartuko dute Hastapena-A mailan.

Aurtengo ekitaldia XXXIV. Gipuzkoa Jaialdia izango da eta ikasleek euren lanak interpretatuko dituzte Arizmendi ikastolan, hilaren 3an, goizeko 9:15etan.

**'Tabuen Kutxatik Oholtzara'  
BERTSO SAIO MUSIKATU SOLIDARIOA**

IZAN IÑURRI, minbizidun emakumeen elkarteak eta udaleko Berdintasun sailak antolatuta, 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio musikatu solidarioaz gozatzeko aukera izango dugu abenduaren 16an. Maider Arregi, Miren Artetxe, Oihana Arana eta Eli Pagola ariko dira bertso kantari, Amaia Agirrek jarritako gaien inguruan, eta Ixak Arruti eta Oihana Rodriguez izango dira musikariak. Sarrera, 8€, Txokolateixan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean. Batutakoa Izan Iñurri elkartearentzat izango da.



**ABENDUAREN 16an  
SANTA ANA  
ANTZOKIAN  
(19:00)  
SARRERA, 8€**

**ARRIZABALAGA  
Aroztegia**

**PAKITA  
Altzariak**

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserriko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## BERTSOAK

ABENDUAK 3 / 20:30

### BERTSO AFARIA

Maidar Arregi eta Aitor Tatiegirekin.  
Prezioa, 15€. [Pake Lekun](#)

ABENDUAK 16 / 19:00

### 'TABUEN KUTXATIK OHOLTZARA'

Bertso-saio musikatu solidarioa  
Bertsolariak: Maidar Arregi, Miren Artetxe, Oihana Arana eta Eli Pagola.  
Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Musikariak: Ixak Arruti eta Oihana Rodriguez. (8€).  
[Santa Ana antzokian](#)

## IPUIN KONTAKETAK

ABENDUAK 3 / 16:30

### EUSKAL HERRIKO MITO ETA IPUIN ZAHARRAK

Ipuin kontalaria: Maitane Aizpurua  
'Marimunduko'. Familiei zuzendutako saioa (5€). Informazioa eta izen-ematea: 943782894 / [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
[Arantzazuko Parketxean](#)

## KONTZERTUAK

ABENDUAK 2 / 18:30

### ALOÑA ABESBATZA

Pake Lekuko abesbatzaren kontzertua.  
[Santa Ana aretoan](#)

ABENDUAK 2 / 22:00

### ETXEPE + NIZURI TA ZUNERI

Euskaraldiaren harira antolatutako kontzertua. [Gaztetxean](#)

ABENDUAK 3 / 21:00

### POTEMKIN + RODEO + JOHN DEALER AND THE COCONUTS

Sarrera, 10€. [Gaztelekuan](#)

ABENDUAK 17 / 17:00 eta 19:00

### GOIAZEN 9.0

Sarrerak (8€) 6-18 urte artekoentzat

## EGUZKIAREN ALDAKORTASUNA

### Zergatik axola behar zaigu, eta zergatik ez

**HITZALDIA** Ilatargi taldeak Iñigo Arregi astrofisikari oñatiarraren hitzaldia antolatu du. Eguzkian agertu eta desagertu ohi diren orban ilunei buruz berba egingo du. Zerk eragiten ditu? Ba al du eragin zuzenik gugan, gure eguneroko bizitzan, gure eguraldian, edo kliman?

[Abenduak 27, kultur etxean, 19:00](#)



izango dira soilik. [Santa Ana antzokian](#)

ABENDUAK 17 / 20:00

### GABONETAKO KONTZERTUA

Oñati Abesbatzaren kontzertua. Paulo Anduaga eta Esteban Irueta ohorezko bazkide izendatuko dituzte kontzertuan zehar. [Agustinoen elizan](#)

ABENDUAK 18 / 12:30

### 'HATOR HATOR'

Gabonetako kontzertua. Oñati, Ganbara eta Hots abesbatzak, eta musika banda nahiz Banda Gaztea. [Zubikoa pilotalekuan](#)

ABENDUAK 23 / 19:30

### RUPER ORDORIKA

'Amour eta toujours' birako kontzertua. Sarrerak **agortuta**. [Gaztelekuan](#)

ABENDUAK 30 / 19:00

### GOSPEL KONTZERTUA

Ispirit Gospel taldearen kontzertua. Sarrerak, 10€. [Santa Ana antzokian](#)

## HITZALDI-TERTULIAK

ABENDUAK 14 / 18:00

### 'EKOFEMINISMOA EGUNGO TESTUINGURU EKONOMIKOAN'

Hizlaria: Diana Garzón. Gazteleraz. Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan. Dohainik. [Kultur etxean](#)

ABENDUAK 21 / 10:00

### 'INUN' HITZALDI MUSIKATUA

Mikel Inuntziaga kantariaren eskutik. Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. Dohainik. [Santa Ana antzokian](#)

## AZOKA

ABENDUAK 18 / 10:00-14:00

### ARTISAUEN AZOKA

Oñatiko artisauen Gabonetako azoka. [Merkatu plazan](#)

## IKUSKIZUNAK

ABENDUAK 28 / 12:30 eta 17:00

### POTX ETA LOTX

'Aireportuan' ikuskizun berria aurkeztuko dute. Sarrera, 5€. [Santa Ana antzokian](#).

## EKINTZA BEREZIAK

ABENDUAK 18 / 10:30

### ESPELEOTXIKI

Familia-abentura 6 urtetik gorakoentzat (20€). [Arrikruz-Oñatiko kobetan](#).

ABENDUAK 18 / 15:00

### ILUNPEKO ALTXORRAK

Familia-abentura 3 urtetik gorakoentzat (8€). [Arrikruz-Oñatiko kobetan](#).

 **ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



## IPUIN KONTAKETA

### 'Ipuin euria'



**Ostegun kontalariak** ekimenaren baitan, 6-9 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da abenduaren 15ean, udal liburutegian (18:00) Ines Bengoaren eskutik. Izen-ematea, abenduaren 1etik aurrera.

## ERAKUSKETA

### Elorriaren hotsa



Jose Angel Iturberen margolanak ikusgai egongo dira kultur etxean abenduaren 12tik 23ra, egunero, 18:00-20:00. Izadiarekiko duen maitasuna eta bertan senti daitekeen bakea islatzen saiatzen da Iturbe bere margolanetan. Sentipen hori hitzez adierazi ezin duenez, margolanaz baliatzen da maitasun hori adierazteko.



## Hileko gomendioa

Liburu gomendagarrien neguko gida banatuko du laister udal liburutegiak. Beste liburutegi batzu-ekin elkarlanean egindako gida da bertan proposatutako dokumentuak denon eskura daude. Udal liburutegiak irkurketa-une zoriontsuak opa dizkizu urteko egun guztietan.

## ZINEA



### Abenduak 1 - 5

**ZINE KLUBA:**  
La consagración de la primavera  
**NAGUSIAK:**  
Gabi, 8 urteik  
13 urtera  
**GAZTETXOAK:**  
Nire zirkua



### Abenduak 15 - 19

**ZINE KLUBA:**  
Cerdita  
**NAGUSIAK:**  
Suro  
**GAZTETXOAK:**  
Mundo extraño



## ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).  
Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

### Abenduak 8 - 12

**ZINE KLUBA:**  
-  
**NAGUSIAK:**  
As bestas  
**GAZTETXOAK:**  
Rabbit  
Academy, Pazko Arrautzen  
Lapurreta Handia



### Abenduak 22 - 26

**ZINE KLUBA:**  
Agua  
**NAGUSIAK:**  
-  
**GAZTETXOAK:**  
-



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorenzo 3** ☎ 943 78 21 16  
Abenduak 6, 7, 16, 17, 18, 26, 27 ETA  
31. Urtarrilak 1.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ 943 78 01 22  
Abenduak 1, 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta  
29.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ 943 78 05 58  
Abenduak 2, 3, 4, 13, 14, 21, 22 eta  
30.

### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ 943 78 11 28  
Abenduak 5, 8, 14, 15, 23, 24 eta 25.



## MERKATU TXIKIA

**ETXEBIZITZA** salgai Oñatiko erdigunean (82m<sup>2</sup>). Bista ederrak eta oso argitsua. Deitu: 655 720 404

**GARAJEA** Garaje bat alokatzen da Ugarkaldeko 13-17an. 645719884

**LOKALA** Bulego edo zerbitzu jarduerarako lokala/espazioa (17m<sup>2</sup>) alokatzen Euskadi Etorbideko 7an. Deitu: 645 719 884

**ETXEBIZITZA** Lan finkoa duen Oñatiko bikote gaztea alokatzeko etxebizitza bila. Deitu: 626 857 023

## ODOL ATERALDIA

**ABENDUAN EZ DA ODOL ATERALDIRIK EGONGO**

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati





(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; KONTU KONTARI

## 'Gerriak urten dau!'

Mutiko kuadrillia ba ei ebillen plazan jolasian gustura, iñungo ardura barik, neska-mutikuak bakarrik dakixein moduan, eta hartan ebiltzela hara nun konturatu ziran ingurutik pasaitten zan jente dana estu eta larri xoiala, agopeian zerbait esanaz. Mutikuak erne, zer pasaitten ete zan jakin guran...

Berbalotsari jaramon egiñaz, gerriak urten eben zurrumurrua entzun euen:

'Afrikan gerriak urten dau; Afrikan gerriak urtenik izan bihar dau...'

Ez euen oso ondo entenditten haren esanguria, baiña zeozer larrixa izan bihar zala pentsau euen. Jolasok itzi alde batera, eta... danak antxintxika etxera aitta-amen ondora!

Handik hiru egunera herrixan zan gerria!



Txorromorropikutaioketan jolasian

## &gt;&gt; ASMAU: '-ETXE' OSAGAIXA DAKOIN BERBAK

Lotu -ETXE osagaixa dakoin berba honeik bakoitza bere esanguriarekin (2):

- |   |   |
|---|---|
| 1. Abadetxe / Erretore-etxe<br>Apaizetxe / Farretxe | a.- Kiputzak edo harein jatorrikuak bizi diran etxia  |
| 2. Dola(r)etxe                                      | b.- Kale Zaharreko etxe baten izena. Bertakoen ezizena.   |
| 3. Kipuetxe   | c.- Maisua bizi dan etxia.  |
| 4. Eskolaetxe                                       | d.- Sagarrak prentsaitteko dolaria dakon etxia. Baserri izena.  |
| 5. Indarretxe                                       | e.- Monjak bizi diran etxia. Monjen konbentua.  |
| 6. Moja-etxe  | f.- Gogo-jardunak egitteko tokixa eta baliabidiak eskeinketan dittuen etxia.  |
| 7. Poparretxe                                       | g.- Eskolia dan etxia.  |
| 8. Maisuetxe  | h.- Abadia bizi dan etxia.  |
| 9. Gogarte-etxe                                     | i.- Elektrizidade inddarra sortzen dauen fabrikia; Olatekua, esaterako.   |
| 10. Eperretxe                                       | j.- XIX. gizaldixan, Murgiko Arretxe baserritik kalera etorritako Pope izeneko gizona bizi izan zan etxia eta, ondoren, haren famelixa-izena. |

- Kontuz! Kondiaren etxia, kondiarena da [kondiana]; dukiaren etxia, dukiarena [dukiana]; eta alkatiaren etxia, alkatiarena [alkatiana]!

- Esaeria: 'Diru-etxiak, lapur-etxiak'



**AIREPORTUAN** izeneko ikuskizun eta disko berri bana aurkeztuko dute Potx eta Lotx pailazoek datozen egunetan.

Aireportu batean gertatzen da Oñatiko pailazo bikotearen abentura berria. Txikitako ametsa betetzear daudela, gauzak okertu egingo dira eta Los Angelesera bidaiatu beharrean, Gasteizen amaituko dute.

Baina ez dira etsipenean eroriko, eta erresilientzia jokatzu egoerari aurre egitea lortuko dute, bizitzari irripark egiteko aukera eskainiz.

Aireportuan abentura pila bat bizitzeko aukera izango dute, eta pertsonaia berriak ere eza gutuko ditugu: *Susi* azafata, *Gartxot* pilotua, eta *Txolo* polizia.

Abenduaren 26an izango da estreinaldia Bilboko Campos Eliseos antzokian, eta bi egun beranduago, hilaren 28an Oñatin aurkeztuko dute Santa Ana antzokian, bi emanaldirekin. Abenduaren 3an jarriko dira sarrerak salgai [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eta Txokolateixan.

#### **DISKO BARIKO DISKOA**

Ikuskizuneko kantak biltzen dituen diskoa ere atera dute Potx eta Lotxek, baina formatu berritzailean, diskorik gabeko diskoa baita. Liburuxka formatuan atera dute, Pernan Goñiren ilustrazioekin, eta kantak entzuteko bertan datorren QR-a eskaneatu behar da.

Txinparta bertso eskolako kideek jarri dizkiete hitzak abestiei. Durangoko azokan aurkeztuko dute abenduaren 8an, baina bideoklipa ikusgai dago jada beraien YouTubeko kanalean. ■

Ikuskizun eta disko berri  
banarekin datoz  
Potx eta Lotx pailazoak



# 'AIREPORTUAN'

» Abenduaren 28an Oñatin taularatuko dute ikuskizun berria. Bi emanaldi eskainiko dituzte.

» Diskorik gabeko diskoa atera dute. Abesti bakoitzaren inguruan Pernan Goñik egindako ilustrazioekin osatutako liburuxka bat atera dute, QR kode bat duena kantak entzuteko

 **Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com)

 **PINTURAS**  
**URBIA**  
**MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

# A

azken  
antxiñakoa

**E**skerrik asko esateko ordua iritsi da. *Kontzejupetik* aldizkariak izan duen kolaboratzaile finena izan da Jerardo Elortza. Aldizkariaren 1 zenbakiarekin hasi eta gaur arte 400dik gora artikulua idatzi ditu, zein baino zein interesgarriagoak, sail ezberdinetan: **Antxiñako Fotografia, Ondaria zaindu guran, Oñati letrarik letra, Oñati auzorik auzo, Oñati kalerik kale.**

Oñatiko historia eta ondareari buruzko hainbat datu eta kontu jakingarri eman dizkigu 30 urtetako ibilbidean. Badakigu, aurrerantzean ere laguntzeko prest izango dugula, informazio iturri oparoa eta eskuzabala baita, baina hileroko kolaborazioei dagokionez, hil honetako **Antxiñako Fotografia** izango da azkena.

Mila esker, Jerardo, aldizkariko lantaldearen izenean.

**Duela 30 urte, 1992ko udazkenean ekin zenion *Antxiñako Fotografia* izeneko atala argitaratzeari. Orduz geroztik 312 argazki zahar izan dira, baina, noizbait behar zuen eta hil honetakoa izango da azkena, ezta?**

Bai, batetik zenbaki borobil samarra delako (30 urte) *Kontzejupetik* aldizkarian kolaboratzen hasi nintzela, eta, bestetik, azkenaldian gero eta aje gehitxoago ditudalako osasun aldetik. Ebakuntza txiki bat izan dut eta pittin bat nekatuta ere banabil; gero eta gehiago kostatzen zait hileroko lotura horri eustea. Argazkia aurkitu, informatzaileekin egon, testua idatzi... eman ez arren, bere lana dakar, eta obligazio hori behintzat arindu nahi nuke. Horrek ez du esan gura tarteka beste gauza batzuk idatziko ez ditudanik aldizkarirako, baina derrigortasun hori apur bat gainetik kenduta.

**Nolatan sortu zen *Antxiñako Fotografia* atala?**

*Kontzejupetik* aldizkaria irten zenean, *Laixan*-eko (Euskararen aldeko elkarte) zuzendaritzan geunden, eta aldizkariko orrialde batzuk *Laixan*en izenean hartzea erabaki zen.

Fotografia zaharrena lehenagoko kontua da. Lauzpabost urte aurretik *Arrasate Press* aldizkaria hasi zen Mondragoen, AED elkartearen eskutik, eta Arrasateko udaleko euskara teknikaria zen Josefe Diaz de Tuestak eskatuta, *Foto Zaharra* izeneko ataltxo bat argitaratzeari ekin genion. Gero, *Kontzejupetik* aldizkarian hasi ginenean, hemen ere antzeko zerbait egin zitekeela-eta, ***Antxiñako Fotografia*** atala sortu genuen, eta izan du bere oihartzuna; Xabier Mendiguren Elizegik, adibidez, *Errautsen*





# Asko ikasi dut 'Antxiñako Fotografia'ri esker

*distira* izenekoa ipuin bat idatzi zuen, gure **Antxiñako Fotografia** atalean oinarrituta.

**Antxiñako fotografia** du izenburu atalak, eta argazkia izaten da protagonista, baina fotografiarekin batera hainbat datu interesgarri ere eman izan dituzu. Lan handia dago fotografia bakoitzaren atzean.

Beti saiatu gara argazkia bere testu-guruan jartzen, denboran kokatzen, eta bertan agertzen diren pertsonak ahalik eta gehien identifikatzen, eta horrek dakarren lana batzuetan gogor samarra izaten da. Argazkia zenbat eta zaharra goa, orduan eta gehiago, jakina.

Gogoan dut, adibidez, 1921eko Errosarixoko domekan egin zen atxintxika karrera bateko argazkia argitaratu genuela, eta, handik eta hemendik, lortu genuela denen izenak jartzea. Gerra aurreko txirindularienak ere bai (Urkiolako argazki historikoa, tartean), 1929ko herri-eskolakoa, Agustinoak (Larrakoetxea, Madina...) maisu zirenekoa, gerra garaiko UHP batalloiaarena... Batekin eta bestearekin egonda, azkenerako informazio nahiko osotua ateratzea lortu izan dugu, eta hori benetan pozgarria izaten da.

Bestalde, herri barruko kontuetara mugatu barik, auzoetako berri ematen ere



**30**  
URTEKO ELKARLANA

**400**  
ARTIKULUTIK GORA

saiatu izan gara, eta hainbat argazki argitaratu ditugu Araotz, Arantzazu, Uribarri, Murgia, Berezaio, Olabarrieta, Zubillaga, Torreauso, Zañartu, Garagaltza, Urruxola edo Aurrekomendikoak, besteak beste.

**Informatzaile finak ere izan dituzu, ezta?**

Bai, horixe. Beharra izan dugunean jendeak oso eskuzabal jokatu du, bai materiala uzten, eta baita informatzeko orduan ere. Batzuegana behin baino gehiagotan jo izan dugu, oso buru onekoak zirelako eta pazientzia handia zutelako. Azkenerako eurak ere gustora geratzen zirela uste dut, eta guretzako ere oso pozgarria izan da argazki bati tiraka hainbesteko informazioa eta halako etekina atera ahal izatea. Aldizkarirako ez ezik, beste argitalpen batzuetarako ere baliatu izan dugu informazio hori guztiori.

**Zeuretzat ere aberasgarria izan da, hortaz.**

Jakina. Guk liburuak irakurritz ikasi izan ditugu gauza asko, baina jendeari galdetuta ere bai, gertaera ezberdinak eza-gutu edo bizi izan dituzten herritarren eskutik ere kontu ugari jakin dugu eta, zorionez, Oñatin informatzaile zehatzak izan ditugu. Eta beraiek ez zekitenean,

[hurrengo orrira >](#)

**Oñabike**

[oñabike.com](http://oñabike.com)  
Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

bideratu egiten gintuzten pertsona edo iturri ezberdinetara, eta alde horretatik esperientzia aberatsa izan da.

### **Antxiñako fotografia atala Oñatiko euskarari idatzi izan duzu beti. Zer-gatik?**

1960ko hamarkadara orduko baneukan herriko euskararekiko kezka, eta sasoi hartako Zeruko Argian idatzi nituen artikulu pare bat Oñatiko euskarari. Udal liburutegiko boletinean, Lope Agirreri buruzko ipuin bat ere asmatu nuen oñatieraz; Lopek Elbira alabari berba egiten zion kontakizun horretan, herriko euskarari eta hika.

Ordurako Manuel Umerezen eskuizkribuak (artean ez genekien norenak ziren) aztertzen hasita nengoen eta, horregatik, *Kontzejupetik* aldizkarian parte hartzeko aukera sortu zenean, artikulu batzuk Oñatiko euskarari moldatzea erabaki genuen. Kontuan hartuz Oñatik ondo eutsi ziola bertako euskarari, baita gazteen artean ere, halako zubigintza moduko bat egitea zen helburua, herriko euskara eta batuaren artean. Erakutsi nahi genuen Oñatiko *berbetia* ez zela soilik egoera informaletarako; idatzi eta testuak sortu ere egin zitekeela herriko euskarari.

**Gure ondaria zaindu guran** izenburupean argitaratutako artikulu sorta ere Oñatiko euskarari idatzi genuen, eta Laixanen garaian hainbat herritarrekin egindako elkarrizketa sorta ere bai. Egoki berba egiten eta zeresana zuten herriko hainbat pertsonarekin (Soroandietako Joane, Torreko Plazido, Askazubiko Joxe, Maria Abeldi plantxadoria, Miren Galarza botikarixia, Gurianeko Esperantza eta beste hainbatekin...) Laixaneko taldetxo batek egindako elkarrizketak dira, eta nire ustez oso interesgarriak.

**Izan ere, Antxiñako Fotografia ez baita izan zure kolaborazio bakarra; 1992-2003 artean Gure ondaria zaindu guran eta Oñati letrarik letra artikulu sorta interesgarriak idatzi ze-**

**nituen, eta gerora, 2015-2019 artean Oñati auzorik auzo eta Oñati kalerik kale sailak.**

Alfabetoarena sarri erabili izan den formula da, eta oso era librean jokatu nuen Oñatiko pertsona ezagun, kale, ofizio eta abarri buruz jarduteko. Bi alfabeto osatu nituen.

**Ondaria zaindu guran** atalean errota, karobi, posaera eta zubiei buruz idatzi nuen, besteak beste. **Oñati kalerik kale** sailean herri gune historikoko kaleek azken mendean izan duten bilakaera jaso genuen (kaleen izenak, bertan jaiotako pertsonaiak, dendak...), eta **Auzorik auzo** sailean ere antzeko zerbait, baina formatu laburragoan.

**Nondik datorkizu historia eta ondarearrikoko jakinmina eta zaletasuna?**

Nik lehenengo-lehenengo erosi nuen

liburua, 14 urterekin, Iñaki Zumalderen *Historia de Oñate* izan zen; beraz, gaztetatik zetorren zaletasuna, nonbait. Gerora, Deustun egin nituen unibertsitate mailako ikasketak, beka bati esker, eta aukeran Historia egon izan balitz, horixe ikasiko nukeen, ziurrenera, baina artean ez zegoen, eta Filologia ikasi nuen.

Gero, Felix Ugarteren ekimenez, eta Iñaki Zumalderen laguntzarekin, udal liburutegiak argitaratzen zuen Boletinean idazten hasi nintzen, eta, ondoren, *Oñatiko Arte eta Historia Bilduma* liburuko lantaldean ere jardun nuen. Benetako eskola izan zen hura, Oñatiko betiko monumentu nagusiez gain (Unibertsitatea, Bidaurreta, parrokia...), kale guztietako eta baserri auzoetako ondarea ere (ermitak, errota, posaerak, karobiak, zubiak...) jaso eta balioan jartzen ikasi genuelako.

**Bateko eta besteko, denera 400dik gora artikulu argitaratu dituzu Kontzejupetiken, zein baino zein interegarriagoa. Beraz, eskerrik asko, egindako ekarpen handiagatik.**

Ni neu nago eskerrak eman beharrean. Ondo gogoan zaituztet urte askotan zehar, alde edo moldez, laguntzaile izan zaretenok zeregin honetan. Hemen denon izenak aipatzeak ia amaigabeko zerrenda sortuko luke. Izan ere, makinatxo batek erraztu baitidazue lana argazkiak eta informazioa eskuratzeko orduan: udal artxibo, liburutegi, euskaltegi eta beste sail batzuetako langileek ez ezik, Oñatiko argazkilaria profesional nahiz amateurrek eta dozenaka herritarrek ere samurtu dizkidazue materialak eta argibideak. Eta beti borondate onenaz eta pazientzia handiaz. Bereziki, jakina, *Kontzejupetik* aldizkari adiskideok. Beraz, mila esker denoi, nire ustez, guztiontzat aberasgarria izan den lankidetzaren honengatik. Hemendik aurrera **Antxiñako fotografia** atala utzi arren, ahal dudan bitartean jarraitu nahi nuke gure herriko kontuak jorratzen eta argitaratzen.



[jerardoelortza.eus](http://jerardoelortza.eus)

atarian daude ikusgai Jerardok aldizkari honetan idatzitako artikulurik gehientsuenak




Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)



## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



# Azkenengo Antxiñakorako fotografixak

**H**oneik izango dittuzue **argazki zaharren** sail honetan agertuko diran **azkenengo fotografixak**. **Hogeta hamar urte** aberats bete dittugu **alkarlan estuan**. Izan be, zuen laguntasun barik ezinezkoa egingo xakun orrialde hau moldaitteko ardurari hillero erantzutia. **Guztion ekarpena izan da inportantia**: artxibuetako langilliena, era askotako argazkilarixena edota dozenaka herritarrena. Gehixenetan eskatu ahala samurtu doskuzue material eta argibide egogixak, borondate onenarekin; eta batzuetan eskatu barik be bai.

Gaurkuan, despedida moduan, **trenarekin eta trenbidiarekin zerikusixa** dakoin fotografixak dakartzuegu barrero be. Orain dala ehun urte, artian egitten ziharduain **Vasco-Navarro** tren-konpaiñiaren San Prudentziotik Oñatirako adarra. Egixa esateko, **linea horrek martxan ez eben iraupen oso luzia euki** (1923-1967), baiña, bere gorabehera eta guzti, **ondorixo sakon samarrak itzi zittuan** hemengo historixan. Lehenengo urtietan bertako industria dezente azkartu zan, materialak errezago eskuratu eta produktuak merkiago kanporatuaz; inguruko herrixetako fabriketara fateko langille askok ebalten eben, Bergara, Mondrague eta Aretxabaletara batez be; gerra ostian makiña bat gazte oñatiar balixau zan trenaz Arrasateko lanbide-eskolan eta beste zentro batzuetan ikasi ahal izateko; eta behekaldeko beste auzotar askok be sarritan aprobetxaitten eben trasportiori kale aldian egin bihar izaten zittuan zeregiñetarako.

Fotografixa bixen artian eztago denbora aldetik tarte haundirik. **Ezkerrekua 1923ko udakua izango da**. Trenbidiaren inauguraziño ofizialaren aurretik **zubi baten sendotasuna probaitten dihardue bi txokolaterak**. Ibarrako estaziñotik Elorregiko-raiñokoan bost zubi egin ziran 6,722 kilometroko ibilbidian, erreka-zatixak gaiñetik pasaitteko. **Eskumako fotografixia**, berriz, **1936ko udazkenaren lehenengo egunetakua** dogu. Gerra zibillian militar matxinuak, bi hillabeteren ondoren, agorraren 21an Oñatin sartu ziranian, errepublikiaren aldekuak **Madalenako zubi bixak (kamiñokua eta trenbidekuak) bota zittuain**, arerixuen aurrerabidiari oztopuak jarteko. Argazkixa nungua dan samur asmau leike, ezkerretera daguen Madalenako santutxuaren atze-kaldiak eta aurreko Urteazpiko baserrixak garbi erakusten doskue-eta. Kuriosua da lehenengo fotografixa atara zanian Primo de Riveraren diktadura labur samarra hasi zala, eta bigarrenian askoz luziagua suertau ziran Mola eta Francoren gerria eta diktaduria.

Zubixori laister konpondu zan, jakiña, eta **trenbidiak**, elektrifikau eta gero, **beste hamarkada batzuetan iraun eben, 1967ko Urte Zahar egunian betiko kendu euen arte**. Beste herri batzuetan trenbide-zati asko pasioarako bide-gorri bihurtu badira be, Oñatin industriak okupau dittu lurrik gehixenak, Osinurdiñetik Elorregirako tartia eta beste pusketa motzen bat izan ezik.

Eta honenbestez, urte honeittan **laguntzaille edota irakurle izan zauegun danoiri agur eta eskerrik beruenak**, bihotzez!

Ezkerreko argazkixa Olatz Osaren **Oñatiko trenaren inguruan**, 1996, liburutik hartu dogu; eta eskumakua Gogoratu guran taldeak 2011an atara eben **Gerrako garrak Oñatin** izenekotik. Milla esker!





Lenny aulki  
motorizatua. Sofa  
Lekun ikusgai.

GORRIA GABONETAKO KOLOREA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA

***Zorionak eta urte berri on!***



amuebladoramondragonesa.com  
Zigarrola 1, Arrasate. 943 79 15 03

